

Hitzen etxeak mende erdi

Nekane Bereziartuaren eta Gaizka Olabarriren dendak urrezko ezteiak ospatuko ditu otsailaren 3an. Lanean jarraituko dute Hitz kulturaren arnagune izan dadin / 2-3



"LESIOEK EZ DIDATE UTZI NIRE MAILARIK ONENA EMATEN"

Ewan Urain Italiako laugarren mailan jokatzeko dabil aurten.

Lesioak ahaztuta, Athleticen hezitako promesa durangarra gozatzen dabil Manfredonia taldean / 22

LUCIA MELGARNE

GEHIGARRIA / 13



Behirik eta idirik bako San Blas azoka egingo dute otsailaren 3an Abadiñon / 16

DURANGO
HIZ KUNTZA
ESKOLA OFIZIALA

MATRIKULA LIBREA ZABALIK
Otsailaren 2tik 9ra
36,18 €

Informazio gehiago:
www.eoidurangoheo.hezkuntza.net
944 28 8 310
Zubiaurrea kalea 1. 48200, Durango



Ekaitz Herrera LIBURU-DENDAK

Baten batek baino gehiagok esan dezake liburuak ez duela garairik onena bizi. Baina, zorionez, oraindino ere Durangon bizi-bizirik daude literaturaren arnasmune txikiak: Urrike, Arteka zein Hitz. Azken hori ospakizun betean dago gainera, otsailaren 3an 50 urte egingo ditu eta. Eta efemeridea behar den moduan kontatzeko, ANBOTO Nekane Bereziartuagaz eta Gaizka Olabarriagaz batu da, liburu dendako lehenengo arduraduna izandakoagaz eta egungoagaz.

Nekane: 50 urte joan dira dendako ateak zabaldu zenituenetik.

Nekane Bereziartua: Leopoldo Zugaza eta Jesus Astigarraga izan nituen nagusi. Gerediaga elkarteko sortzaileak ziren biak, artearen bueltan zebiltzan, eta baita Durangoko Azoka antolatzen ere. Eta, halako batean, Leopoldori liburu dendak bat sortzea bururatu zitzaion. Izan ere, liburuak argitaratzen zituen, eta euskarazko liburuak funts handia zeukan: Auspoa argitaletxeko liburuak, Añamendikoak... Horrez gainera, grabatuak eta halakoak kaleratzen zituen, ordukoak: Balerdi, Zumeta, Ortiz de Elgea, Ramos Uranga. Horietariko batzuk ikusgai daude oraindino ere dendan. Eta, halantxik, Leopoldo Zugazaren eta Jesus Astigarragaren esanetara hasi nintzen lanean. Dendako ardura hartzea egokitu zitzaidan.

Zelan gogoratzen dituzu lehenengo egunak?

N.B.: Oso akordu atseginak datozkit. Gustatu egiten zitzaidan. Lan handia zegoen egiteko, dena eskuz egiten zen eta. Ez zegoen ordenagailurik. Baina Azoka antolatzen egotera, gutxi gorabehera bazenekien zer etorriko zen. Gaztea nintzen orduan, eta pozik lan egiten nuen. **Liburu dendak asko zegoen Durangaldean?**

N.B.: Paper dendak eta liburu saltoki legez funtzionatzen zuten establezimenduak zeuden. Durangon, adibidez, Urtiaga paper dendak. Gero, Maristak ikastetxea zegoela eta, liburu teknikoak ere saltzen ziren. Ochoa dendak ere bazegoen, egunkariak eta aldizkariak saltzen zituen. Gogoratzen naiz aitagaz mezatara joaten nintzela, eta handik bueltan

"Hitz dena da guretzat, gure etxea eta gure bizitzaren zati"

NEKANE BEREZIARTUA ETA GAIZKA OLABARRI HITZ LIBURU DENDA

Durangoko Hitz liburu dendak 50 urte egingo ditu otsailaren 3an. Gaizka Olabarrik eta Nekane Bereziartuak mimo handiz jarraituko dute kulturaren arnasmunea gidatzen



Nekane Bereziartua Bikandi eta Gaizka Olabarri Bengoetxea Hitz liburu dendako arduradunak.

egunkaria eta haur-komikia erosten genituela Ochoarenean. **Gaizka Olabarri:** Beti entzun dut Hitz dendak berritzailea izan zela formatuari dagokionez. Hau da, lehen, liburu dendak batera sartzea beste edozein dendatara sartzearen modukoa zen. Sartu eta mostradoreak zeneukan aurrean. Eta mostradore hartatik eskatzen zenizkion liburuak arduradunari. Baina Hitzek formatu hori aldatu zuen. Sartu eta liburuak ikusteko eta ikutzeko

aukera eskaini du beti, liburuak artean paseatzeko aukera. Berritzailea zen orduan.

N.B.: Hitz lehenagoko kokalekuan, pareko lekoean zegoenean, obra egin genuen dena bistan

"HERRITAR ASKO BATZEN DA HEMEN ETA GUSTATU EGITEN ZAIGU TOPALEKU IZATEA"

ipintzeko. Garai hartan jende asko etortzen zen begiratzen. Izan ere, ez zen dendak arrunta. Eta hara. Joseba Sarrionandia datorkit akordura. Garai hartan eskolan genbiltzan eta askotan etortzen zen dendara. Nik baino hobeto jakiten nuen non zegoen liburu bakoitza. "Nekane, non dago liburu hau? Aurrekoan hemen zegoen", esaten zidan.

Eta urteak joan ahala, erreleboak emateko ordua ailegatu zitzaizun. 2011 zen.

N.B.: Argi neukan 60 urteagaz jubilatuko nintzela. Horretarako bidea eginda neukan. Eta, halako batean, erreleborik ez geneukala, Gaizka agertu zen. "A, bai?", esan nion. Eta probaldia egin ondoren, ados ipini eta Gaizkak hartu zuen erreleboa. **Gaizka, zer dela eta jo zenuen Hitz dendako atea?**

G.O.: Eraikuntza enpresa batean lan egiten nuen, ingeniari tekniko. Kokoteraino amaitu, eta lana uztea erabaki nuen. Eta orduan, 32 urte nituela, hiru-lau hilabete egin nituen beharra topatzen. Beste zeozer gura nuen, baina ez nekien zer. Eta akorduan daukat bariku batean, Durangon *aitaxeagaz* eta *amaxeagaz* bazkaltzen nengoela, aste hartako ANBOTO izan nuela eskuetan. Nekane elkarrizketatu zenuten kontrazalean, eta halantxik jakin nuen Hitzek erreleborik ez zeukala. Eta artikulua irakurri eta segituan, hauxe esan nien familiakoei: "Kafea hartzera noa, eta gero dendak honetara joango naiz". Nekanerengana joan eta erreleborik bazuen galdetu nion. Kulturagaz ez neukan hartu-eman profesionalik, nahiz eta kulturazalea izan. Proba egitea pentsatu nuen, eta probaldia egin eta gero Nekane baietz esan zidan, erreleboa emango zidala. **Erabakiagaz damutu zara inoiz?**

G.O.: Ez naiz damutu, baina argi esan behar dut hau gogorra dela. Ez dela edonorentzako lana. Nekane ere ondo daki hori.

N.B.: Liburuak direla eta, jendeak erromantizatu egiten du lan hau. Baina gero hile amaiera dator, autonomoen kontua, Gizarte Segurantzak, bankuko kontuak...

G.O.: Jendeak hile amaieran kobratzen du normalean. Baina autonomoak garenok dardarka egoten gara hile amaiera zelakoa izango den jakiteko. Ikaratuta.

N.B.: Gustuko lana baduzu, aurrera egingo duzu. Eta alde politak ere baditu. Adibidez, kulturaren egunerokotasuna gertu-gertutik jarraitzen duzu. Behar asko egin behar da, are gehiago garai hauetan. Sasoi onean jubilatuta nintzen.

Askok aldatu dira denborak?

G.O.: Bai. Jendeak oso azkar gura izaten du dena gaur egun. Interneten eraginez, dena berehala gura dugu. Paketeak eskatu, bidali, batu. Eta, lehen, beste patxada bat zegoen. Lehen, martitzenetan etortzen zen ga-

rraiolaria. Orain egunero dator. Horrek guztiaren gainean egotea eskatzen digu. Oso erritmo azkarrean gabiltza eta jendea haserretu egiten da paketea heltzen ez bazaio. Eta zuk hori kudeatzen jakin behar duzu, gertatzen dabilena erlatibizatzen.

N.B.: Ohiturak asko aldatu dira. Nire bilobek hauxe esan zidaten aurrekoan: "Amama: lehen zeozer egin eta saritzen gintuztenean, Urtxintxara edo Hitzera joaten ginen opari legez libururen bat edo jostailuren bat erostera". Eta egia da. Gaur egun, umeeek gurago dute sari legez tableta edo telefonoa izan.

Eta irakurketa ohiturak? Asko aldatu dira?

G.O.: Irakurtzeko ohiturak bere horretan jarraitzen duela esango nuke. Polizia eleberririk beti egon dira hor, hasi Agatha Christieren lanetatik eta Freida McFadden *La Asistentara* arte. Erromantikoak ere bai. Gaur egun gertatzen zaiguna da estimulu asko dugula. Lehen, telebistan bi edo lau kanal zeuden eta gustuko ezer topatzen ez bazenuen, liburu bat hartzen zenuen. Baina gaur egun Netflix,



Gaizka Olabarri eta Nekane Bereziartua, ANBOTOK bideoan harturiko elkarriketetan.

HBO eta mila plataforma daude. Jendeak ez du aspertzeko tarterik. Telesail bat ikustea ez da esfortzua. Liburu bat irakurtzea, oster, bai. Kontzentrazioa behar duzu. Orduan, irakurketarako joera jaitxi egin dela iruditzen zait. Hala ere, liburuak badu *fetitxismo* hori: edizioak oso zainduak dira, balio handia dute objektu legez. Eta liburuak artxibategi digital batean gorde ditzakezun arren, ez da gauza

bera horiek eskuetan izatea, azala ikutzea, eta euren ilustrazioekin, tipografiagaz eta bere usainekin irakurtzea. Iruditzen zait horregaitik mantentzen direla liburu dendak.

N.B.: Nik ez daukat Netflix eta halakorik, ez dut horren faltarik. Zinemara joaten naiz, Zugazara, ia asteburuer, pelikulak zinematik ikusi behar dira eta. Telebistan ere ez ditut ikusten, iragarkiak direla eta. Izan ere, ordu

laurdenero iragarkiak sartzen dituzte, eta ordubeteko saioa ikusteko, ordu erdian ikusi gura ez duzuna ikusi behar duzu.

Zelako bezeroak ditu Hitzek Durangon eta Durangaldean?

G.O.: Denerik dago, eta, jakina, baita bezero fidelak ere. Herri txiki bateko denda txikian erostea gustuko dutenak dira bezero asko. Otxandiotik hasi eta Ondarroaraino, eta Eibartik Zornotzaraino.

Gero, badu beste alderdi bat. Kurgile eta kultur sustatzaileen topaleku izan da eta da Hitz.

G.O.: Jose Luis Bakedano ia egunero egoten da hemen, goiz zein arratsalde. Aurrekoan liburu berria aurkeztu zuen, Miguel Zugaza eta Mikel Onandia lagun. Hiru kurgileak elkarregaz hitzordurik lotu barik etorri ziren hona; liburu bila, disko bila, baikoitza bere aldetik. Eta berrikeran amaitu zuten hemen, luzaroan. Hitzzen jende asko elkartzen da eta niri gustatu egiten zait hori. **N.B.:** Leopoldo zena ere hemen egoten zen beti. Juan Luis Erztilla ere asko etortzen da hona. Elkarriketa luzeak izaten ditugu hemen.

Zeozer berezia egingo duzue 50. urteurrena ospatzeko?

G.O.: Egia esanda, ez dut ezer pentsatu. Efemeride hauekin nahiko lotsatia naiz. Aipamenen bat egingo dugu, pasta batzuk eskaini eta kito.

Zer da Hitz zuen bizitzetan?

N.B.: Dena. Goizean jaiki, egin beharrekoak egin eta hona etortzea nire bizitzaren parte da. Osasunari dagokionez ere on egiten didala esango nuke.

G.O.: Niretzat aurkikuntza bat izan da. Etxea legetxe sentitzen dut denda hau.

Zer esango zeniekete 50 urte haue-tan izan dituzuen bezeroei?

G.O.: Eskerrik asko denei, bihotzez.

N.B.: Etorri daitezela beldurrik barik.

G.O.: Kultura eskaintzen dugu, baina ahalegin berezia egiten dugu euskarazko kultura bultzatzeko. Ildo horri ekin zion Nekane, eta ildo horri jarraitzen ahalegintzen naiz ni.



Ikusi bideoa

URRUN IRISTEKO, GERTU.

Zatoz eta ezagutu
Andramari
Zornotzako ikastola

MATRIKULAZIOA: otsailaren 2tik 13ra

ANDRAMARI
ZORNOTZAKO IKASTOLA

Larrea auzoa z/g 48340 Zornotza
94 673 29 50 - zornotza@ikastola.eus
www.andramarizornotzakoikastola.eus

Patineteen araudia indarrean Durangon

Durangoko udalbatzak behin betiko onartu du patinete elektriko araudia. Ibilgailuek debekatuta izango dute Zeharkalean eta San Agustineko zubian zirkulatzea. Gidariekin 16 urte eginda izan beharko dituzte eta argia erabili beharko dute gauez

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko udalbatzak behin betiko sartu du indarrean patinete elektriko araudia, eta ibilgailu horren erabilera arautu du udalerriko osoan. Araudiko puntu batzuek modu berezian eragingo diote Alde Zaharrari, udalak hainbat irizpide ezarri baititu eremu horretarako. Patinete gidariekin metro biko tartegaz gidatu beharko dute Alde Zaharreko fatxaden eta atarien paretik, eta ibilgailutik jaitsi beharko dute hori egitea ezinezkoa denean. Hori horrela, Zeharkalean eta San Agustineko zubian guztiz debekatuta egongo da patinete gainean joatea, kale horietan bietan ez delako metro biko tartea bermatzen. Gainerakoan, udalerriko osoari begirako irizpide gehiago ipini dute indarrean: patineteak 16 urtetik gorakoek baino ezingo dituzte gidatu, eta, salbuespen legeaz, ziklomotorea gidatzeko baimena duten (AM gidabaimena) 15 urteko gazteek. Era berean,



Patinete elektriko bat. SURPRISING MEDIA

gidariekin argiren bat eraman beharko dute patinetean gauez gidatutakoan.

Araudiak zigorra ipintzeko aukera jasotzen du, baina gobernu taldeko kideek azaldu dute horri ekin baino lehenago ordenantza

berriaren xehetasunak azalduko dituztela ikastetxerik ikastetxe. Udaltzainak arduratuko dira zeregin horretaz. Halaber, agenteek alkoholaren kale kontsumoari buruzko ordenantza ere azalduko dutela iragarri dute.

Patineteen erabilera arautzeko ordenantza EH Bilduren, EAJren, PSE-EEren eta PPren aldeko botoekin irten da aurrera. Herriaren Eskubideak ez zuen bozketan parte hartu.

Hiru alegazio

Udalbatzak urrian eman zion hasierako onarpena ordenantza berriari, eta asteon ipini du indarrean, behin alegazio epea pasatuta. Tarte horretan, hiru alegazio jaso zituzte. Norbanako batena, DAZ Alde Zaharreko bizilagunen elkartearena eta Stop Bide Indarkeria elkartearena. Gobernu taldeko kideek azaldu dute hiru alegazioak aztertuko dituztela, eta proposamenetarikoa jaso dituztela araudian.



Harrera Elkarteko bazkideen bilera bat, Abadiñon. HARRERA ELKARTEA

Harrera Elkartek urteko batzarra egingo du Durangon

Zapatuan San Agustinen batuko dira, 2025eko balantzea egin eta presoaren egoera berriari erantzuteko

Ekaitz Herrera DURANGO

Harrera Elkartek urteko batzarra egingo du zapatuan, San Agustinen. Elkarteko kideek 2025eko balantzea egingo dute, eta 2026ko plangintza aurkeztuko diete bazkideei eta babesleei. Izan ere, elkartek ohartarazi du egoera "sakon" aldatu dela azken urteotan. "Lehen, presoak zigorrak guztiz beteta iritertzen ziren eta egoera horrek beharrezan batzuk zituen. Gaur egun, ostera, presoak erdi askatasuneko baldintzetan iritertzen dira, 3. graduak, eta horrek beharrezan handitu ditu", azaldu du elkartek. Harrera taldeak "akonpainamendua"

eta laguntza asistentziala eskaintzen die "kartzelatik irteten diren euskal presoak eta erbestetik bueltatzen" direnei. "Lan arloan, etxebizitzan, osasun arloan edo edozein kudeaketaren aurrean" eskaintzen diete laguntza. "Gaur egun, 105 euskal preso geratzen dira espetxeetan, baina portzentaje handi batek egunero zapaltzen du kalea, eta dituzten beharrezan guztiei erantzuten ahalegindu behar dugu", esan du Harrera. "Urte asko etxetik kanpora eman duten pertsona horiei lur hartzen eta bizitzan duin bat izan dezaten lagundu behar diegu", gaineratu dute.

Durangoko EH Bilduk etxebizitza tasatuen zozketa kritikatu du

"Etxebizitza tasatuak merkatuko prezioan saltzeak higiezin burbuila elikatzen du", esan du koalizioak



22 etxebizitza tasatuak Birjnosteko eraikin berrian daude.

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko EH Bilduk bere iritzia kaleratu du udalak joan zen astean zozt egindako 22 etxebizitza tasatuen harira. Koalizioaren iritziz, etxebizitza horiek "ez dira nahikoa egoera zuzentzeko". "Kontra, etxebizitza tasatuak merkatuko prezioan saltzeak higiezin burbuila elikatzea bakarrik" dakarrela uste du. Hori dela eta, "egiturazko neurriak" eskatu zituzte, "etxebizitza larrialdiari aurre egiteko". Esan dutenez, "2.100 durangar" daude Etxebiden izena emanda, eta udalerriko 1.500 etxebizitza "hutsik" daude. EH Bilduk gogorarazi du etxebizitza plan bat aurkeztu zuela orain hile batzuk. 10 neurri jaso zituen; tartean, "etxebizitza hutsak mobilizatzeko neurriak" eta "alokairuko etxebizitza publikoa eraikitze proiektuak."

Alex Boto jeltzalea Durangoko osoko bilkurara batu da

Ihobeko zuzendari orokorra da Boto, Ingurumen Sailari atxikitako erakunde publikoko zuzendari orokorra

Ekaitz Herrera DURANGO

Asteon Durangoko udalbatza berritu dute eta izen berri bat batu da bertara: Alex Botoren (EAJ). Boto Ihobeko zuzendari orokorra da 2020tik, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari atxikitako sozietate publikoko zuzendari orokorra. Zientzia ekonomikoetan lizentziatua da EHUn, eta Ingurumena planifikatzeko masterra egin zuen Londresko Ekonomia Eskolan. Botok Sara Ocejaren lekua beteko du, hark udalgintzan 10 urte egin ondoren.



Alex Boto. IREKIA

Korrikaren omenaldia Errigorari, Plateruenean

Korrikak eragileren bat edo erakunderen bat omentzeko ohitura izaten du edizio bakoitzean, eta aurten Errigorari egingo dio aitortza. Omenaldi ekitaldia Plateruenean izango da, zapatu honetan, 13:30ean. Ondoren, bazkaria egingo dute

Ekaitz Herrera DURANGO

Korrikak eragileren bat edo norbanakoren bat omentzeko ohitura izaten du edizio bakoitzean, eta aurten Errigorari egingo dio aitortza. "Nafarroan, euskara ofiziala ez den eremuan, euskalduntzean egin duen ahalegina aintzatesteko modua da, baita etorkizunera begira bultzada emateko hauspoa ere", azaldu dute Korrikako iturriek. "Euskal herritar asko mobilizatu, eta lanean jarraitzen du euskararen aldeko ekintzaileekin. Euskal Herri osoan da ezaguna eta bat egiten du Korrikaren balioekin. Denon arazoei bertatik bertara erantzuten ahalegintzen da, baita etorkizuneko erronkei erantzuna ematen ere, izan larrialdi linguistikoa, klimatikoa zein nortasunaren ingurukoa", gaineratu dute. Omenaldi ekitaldia Plateruenean izango da, zapatu honetan, 13:30ean. Ondoren, bazkaria egingo dute. 24. Korrika martxo amaieran ailegatuko da



Korrikako eta Errigorako ordezkariak.

eskualdera, eta hitzordu handirako asteak falta diren arren, AEK hasi da apurka-apurka egitasmoaren nondik norakoak aletzen. Egunotan, ekitaldi ugari egiten dabil Durangaldeko herrietan aurtengo Korrika aur-

kezteko. Otsailaren 3an, adibidez, Korrika batzordea eratuko dute Berrizen. Hitzordua Kultur Etxean egin dute, 19:30ean. Otsailaren 12an, 19:00etan, aurkezpene egingo dute Iurretan. Goiuria kulturetunean batuko dira.

Berton Bertokoak tokiko elikagaiak zelan eskaini aztertuko du

Zapatuan jardunaldi bat egingo dute Bergaran, beste ikastetxe batzuetako esperientziak ezagutzeko

Ekaitz Herrera DURANGALDEA

Berton Bertokoak Durangaldeko jantokien kudeaketa eredua eraldatzeko aukerak aztertuko ditu zapatuan. Alex Azpiri dinamikako kideak jakinarazi duenez, "eskualdeko ikastetxe publikoetako sukaldeetan bertako ekoizlearen produktuak zelan sartu" izango dute berbagai, topaketa batean. Bergaran dute hitzordua, udaletxeko osoko bilkuren arloan, 10:00etan.

Jardunaldiak atal nagusi bi izango ditu. Batetik, abokatu baten laguntzagaz, marko lega-



Atxondoko eskolako jangela.

lari erreparatuko diote. Bestetik, jada martxan dauden esperientzia esanguratsu bi ezagutuko dituzte: Urduñako eskolako (Bizkaia) eta Betelukoa (Nafarroa). Ikastetxe horietan bietan tokiko produktuak kozinatzen dituzte, eta eskolako jangelan umeei eman.

Berton Bertokoak halako esperientziak Durangaldera ekarri daitezkeela erakutsi gura du. "Sarritan, administrazioak ipinitako oztopo teknikoak gainetik, eskolako jantokiak osasuntsuagoak, iraunkoragoak eta tokiko ekonomiaren bultzatzaile izatea posible dela erakutsi gura dugu, eta badaudela horretarako aukerak". Azpirik gaineratu du eskualdean "zortzi ikastetxek" daukatela sukalde, eta horietan tokiko produktuak kozinatu ahal izatea "teknikoki eta praktikoki bideragarria dela".

Suargik eta udalak Kobaneko erasoak gelditzea eskatu dute

E.H. DURANGO

Azken egunetan, Siriako trantsizio gobernuak hainbat eraso egin du herrialdearen ipar ekialdean, Rojava eskualdean, kurduen kontra. Kobane hirian eta inguruetan gertatu dira erasoetariko batzuk, Durango-gaz senidetuta dagoen hirian, hain zuzen ere. Hori dela eta, Suargi elkarteak eta Durango-ko Udalak gogor salatu dituzte erasoak, "biztanleria zibilaren aurka" eta era "indiskriminatu" egin dituztelako. Elkarteak eta udalak adierazpen bat sinatu dute, eta nazioarteko komunitateari eskatu diote, tartean Europar Batasunari, "indarkeria gelditzeko eta giza eskubideak bermatzeko premiazko neurriak hartzeko". Adierazpenak udalbatzako bost alderdien oniritziagaz aurrera egin du, aho batez.

Adierazpenak Durangoren eta Kobane hiriaren senidetzea du oinarri. Alde biek senidetzea gorpuztu zuten 2017an.

Durangoko gazteek eskuragarri dituzte psikobonuak

E.H. DURANGO

Durangoko Udalak psikobonuen edizio berria ipini du martxan. 2.444 txartel kaleratu, eta 14tik 35 urtera arteko gazteen zerbitzura ipini ditu, gazteei psikologoarenera joatea errazteko. Txartel bakoitza bederatzi euroan ipini dute salgai. Saio bakoitzaren gainerako kostua udalak ordainduko du. 45 euroko ekarpena egingo du saioa, hain zuzen ere. Hori guzti hori dela eta, 100.000 euroko diru atala prestatu dute kanpaina finantzatzeko.

Udalak zehaztu duenez, bonu bakoitza 50 eta 60 minutu arteko saio baterako edo taldeko lau saiotarako erabili ahal izango da. Saioak azaroaren 26a baino lehenago egin beharko dira, egun horretan iraungiko direlako bonuak. Udalak zehaztu du herritar bakoitzak zortzi bonu erosi ditzakeela gehienez.

Txartelak HAZ bulegoko kuxazainetan edo *bonoa.durango.eus* atarian eskuratu daitezke.

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK
Otsailaren 2tik 13ra

Bisita pertsonalizatuak urte osoan zehar

Berriz Mendiola Zuboia Kalea, 5
 48200 Durango, Bizkaia

neveraskastetza.com

945 81 09 48

@neveraskastetza



MusikagazFest jaialdiko aurkezpeneko argazkia.

Hamahiru gazte sortzaile Zornotzako MusikagazFest-en

Zapatukoa jaialdiaren laugarren edizioa izango da. 13:30ean hasita, hamahiru taldek emango dituzte kontzertuak

Aritz Maldonado ZORNOTZA

Urtarrilaren 31n MusikagazFest jaialdia egingo dute Zornotzan. 13:30ean hasita, hamahiru musika taldek joko dituzte kontzertuak; besteak beste, Sueder, Hondora, Etxepe eta Jonkas artistek.

"Pozgarria da horrelako ekimenak ikustea; hor ikusten da Durangoko Azokaren ekarpena, besteak beste", azaldu du Beñat Gaztelurrutia Gerediagako kudeatzaileak. "Euskarak eta euskal sortzaileek hartzaileak behar dituzte, eta, hain zuzen ere, hori eskainiko du MusikagazFest-ek", gaineratu du. Musika Bulegoko

Ruth Manzanok azaldu duenez, "DA! PRO topaketen bitartez, Musika Bulegoak talentu berriak eta programatzaileak hartu-emanetan ipintzen ditu, eta MusikagazFest-en programazioan topaketa horretarako taldeak egoteak ekimen honen sortzaileen ikusgarritasuna eta profesionalizazioa bultzatzen dituela erakusten du". Bestalde, Ainhoa Salterain Zornotzako alkateak herriko artisten presentzia nabarmendu du: "MusikagazFest-ek benetako lekua egiten die gazteen ahotsari, sormena kalera ateraz eta kultura elkarregaz bultzatzeko modu berriak sortuz".

Udalak 'Zornotzan' gida berria kaleratu du

Gidak 2026ko otsailetik ekainera bitartean Zornotzan egingo diren jardueren berri ematen du

A. M. ZORNOTZA

Zornotzako Udalak *Zornotzan* gidaren beste edizio bat kaleratu du. Otsailetik ekainera bitartean herrian egingo diren jarduera eta ikastaroen eskaintza jasotzen da bertan. "Herritar guztiak parte hartzera gonbidatuko dituen eta ongizatea eta ikas-kuntza bultzatuko dituen proposamen anitza eta zabala eskaintzea da helburua", azaldu du udalak ohar batean. Gida sei ataletan banatuta dago: berdintasuna, euskara, gizarte ekintza, kirola, liburutegia eta kultura. Gidak adin desberdinetako zornotzarrentzako proposamenak batzen ditu, askotariko jarduerak bilduta.

Izena emateko epea zabalik dago jada, udalaren webgunean (www.amorebieta-etxano.eus) zein aurrez aurre (Herritarren Arretarako Zerbitzuan egin daiteke, Zelaieta Zentroan) egin daiteke.



Barikuan egin zuten elkarretaratzea. MATRAILU

"Faxismoaren gorakada"-ren aurkako protesta Zornotzan

Hainbat lagun batu da etxegabetze enpresa baten presentziaren aurka, "faxistak kanpora" lelopean

E. H. ZORNOTZA

Zornotzako Matrailu gaztetxeak deituta, barikuan elkarretaratzea egin zuten, aurreko batean etxegabetze enpresa bat udalerrian egon zela salatzeko. Gazte taldea Urgezoz batu zen, etxegabetze enpresa bat San Antonio auzoko etxebizitza batera joan zela salatzeko. Protesta amaieran, Zornotzan gertaturikoa ez dela egun bakarreko kontua izan azaldu zuten. Jakinarazi zuten, enpresa horrek "hilabeteak" daramatza etxebizitzako maizterra "jazartzen, haren etxera joanda edo telefonoz deituta". Gaztetxe-

ko kideen esanetan, etxegabetze enpresek modu honetara funtzionazen dute: "mehatxua, beldurra eta presioa darabiltzate, eta familien ezjakintasuna eta babesgabetasuna baliatzen dituzte kaleratzeak gauzatzeko".

Gaztetxe kideen berbetan, etxegabetze enpresen jarduna "faxismoaren gorakadaren seinale" da eta kolektibo zaurgarriak "jo puntuan" ipintzen dituzte. "Sare sozialetan eta komunikabideetan gorroto ideologikoak normalizatzen dituzte: arrazakeria, ultranazionalismoa eta klasismoa, kasurako".

Elorrioko Ortuguren baserriko troxa, Euskal Museora

XVII. eta XVIII. mendeen artean sorturiko troxa da. Aleak gordetzeko erabiltzen zen; barruan 4.140 kg hartu ditzake



Troxak lekualdatzen. GEREDIAGA ELKARTEA

A. M. ELORRIO

Elorrioko Ortuguren baserriko troxa ezaguna Euskal Museora ikusgai izanda da ekainetik aurrera, hango lanak amaitu eta museoak zabaltzen dutenean. Landaburu-Uribarrena familiak eta Euskal Museoa horretarako hitzarmena sinatu dute, Gerediaga elkartearen bitartekaritzagaz. Gerediagaren esanetan, kontserbazioa zaintzeko helburuz, anoxia tratamenduagaz desinfektatuko dute lehenengo. Bilbora eraman dute horretarako. Adituen esanetan, XVII. eta XVIII. mendeen artean sorturiko troxa da. "1797ko urtarrilaren 9ko ezkontza hitzarmen baterako atalean aipatzen da. Aleak gordetzeko erabiltzen zen (artoa, garia...), eta barruan 4.140 kg hartzeko gaitasuna du", azaldu dute Gerediagako kideek.

'Emakume jakintsuak' jabekuntza ikastaroa Berrizen

Miriam Herbón komunikazioan adituak dinamizatuko ditu saioak; otsailaren 10era arte eman daiteke izena

A. M. BERRIZ

Berrizko Udalak antolatu duen *Emakume jakintsuak* jabekuntza ikastaroa aste honetan bertan hasi da martxan; hala ere, ikastaroa egiteko interesa duten pertsonen izena emateko aukera dute oraindino ere. Otsailaren 10era bitartean dago aukera ekimen batzeko. Ahalduz gero, ikastaro honen bitartez, parte hartzaileek *mindfulness* eta adimen emozionala feminismotik praktikatu ahal izango dute. Hilean bi-hiru saio egingo dituzte guztira, eta bakoitza bi ordu

eta erdikoa izango da. Saioak Berrizko Kultur Etxean izango dira. Ikastaroa urte osokoa izango da (uztaila eta abuztua salbu) eta abenduaren 23ra arte iraungo du. Miriam Herbonek dinamizatuko ditu saioak. Herbón komunikazioan aditua, Heziketa Emozionaleko irakaslea, eta Harreman Osasuntsuetan espezializatua da.

Izen ematea Internetez egin daiteke. Berrizko Udalak aurrez aurre egiteko aukera ere eskaini du, udaletxean bertan, edo, bestela, liburutegian.



**KURUTZIAGA
IKASTOLA**

BIZITZEKO HEZI



ESKAINTZA

0 urtetik 18
urtera bitarteko
hezkuntza
eskaintza.



HELBURUAK

Ikasle euskaldun,
kritiko eta
eleanitzak.



ELIKADURA

Jantoki
Eko-Arduratsuen
ziurtagiria.
Bertokoa,
ekologikoa eta
sasoikoa.

Matrikulazio epea:
otsailaren 2tik 13ra

Galtzareta Kalea, 13 · 48200 Durango, Bizkaia
946 20 08 22 · kurutziagaikastola.eus



**Bisita
indibidualak**

"Helburua antzerkirako zaletasuna piztea da"

GARAZI MAGUNAGOITIA BEREZIARTUA ANTZERKI TAILERREKO IRAKASLEA

Karrika antzerki taldeko kideak antzerki tailerra abiatu du bere sorterrian, jolasa oinarri hartuta eta etorkizuneko antzerkizaleak sortzeko helburuagaz

Joseba Derteano ATXONDO

Garazi Magunagoitia (Atxondo, 1986) antzerki tailerra abiatu berri du herriko gaztetxoan artean antzerkirako zaletasuna bultzatzeko. Aste batean eguenean eta hurrengoan barikuetan batzen dira, 17:30-19:30 artean, erabilera anitzeko gelan. Oraindino plazak daude eta liburutegian galdetu daiteke. Horrez gainera, hilean behin antzezlan bat ikustera joango dira inguruko herriko aretoetara. Saio monografikoak ere antolatuko ditu. Azken ekimen bi horiek tailerrean ez dabilzanentzat ere zabalik egongo dira.

Zelan sortu zen antzerki tailer bat sortzeko ideia?

Atxondoko Kultura Mahaia sortu zenetik, geroago eta ohitura handiagoa dago antzerkia antolatzeke, baina antzerkirako zaletasuna pizteko zeozer falta zela ikusten nuen. Eta zer hoberik antzerki tailer bat antolatzea baino, herriko umeengan antzerkirako har hori isiotzeko. Ni neu Durangoko Karrika antzerki taldean nabil, baina nire zaletasuna ez zuen Karrikak piztu, Arrazolan urtero udan egiten genituen antzezlanek baino. Eta ez da besterik, jolasean hastea baino. Atxondoko gazteei horrelako zeozer eskaintzea in-



Magunagoitia Karrika antzerki taldeko kidea da.

teresgarria iruditu zitzaidan. Niri umetan antzerkirako zaletasuna piztu zitzaidan moduan, orain herriko umeengan zaletasun hori sortzen ahalegintzeko

"ANTZEZLAN BAT IKUSTERA TALDEAN JOATEA AUKERA ONA IRUDITZEN ZAIT OHITURA SORTZEKO"

ekimena da. Kultura Mahaian proposatu eta aurrera irten zen. **Zelan joan zen joan zen asteke lehenengo saioa?**

Primeran. Nik neuk oso ondo pasatu nuen eta umeek ere oso ondo pasatu zutela esan zidaten. 11 ume dabilta oraingoz, 10etik 13 urtera artekoak. Lehenengo eguna zenez, jolasak egin genituen, elkar ezagutzeko. Tailerrean zer egitea gustatuko litzaiekeen galdetu nien. Aurrera begirako ideiak hartzeko ere balio izan

zidan. Ordu biko saioak izatea erabaki genuen, denbora behar delako dinamikan sartzeko.

Zein da sekretua umei antzerkirako interesa pizteko?

Jolas moduan hartzen dugu. Antzerkiaren bitartez ondo pasatu dezaten da helburu nagusia. Ikasturte amaieran baliteke erakustaldi txiki bat egitea. Denbora ematen badigu, ondo, eta bestela ere bai.

Hiru hilerik behin saio monografikoak egingo dituzue.

Bai, tailerrean ez dabilzanentzat ere zabalik egongo da atea. Azken batean, astero etorri ezin eta parte hartzeko gogoz geratu direnak beste modu batean batzeko bidea da. Monografiko bat izan liteke makillajeari buruzkoa, beste bat soinuaren ingurukoa edo argiztapenari buruzkoa... Helburua da erakustea antzerkia ez dela bakarrik aktoreen lana; atzean lan handia eta garrantzitsua ere badagoela.

Tailerraz gainera, antzerkia ikustera joateko irteerak ere antolatuko dituzue hilean behin.

Antzerkia egiteaz gainera, antzerkia ikustea ere garrantzitsua da zaletasuna sortzeko. Otsailaren 8an, 18:00etan, *Laika* antzezlan ikustera joango gara Durangoko San Agustin kulturgunera. Irteerak tailerrean ez dabilzanentzat ere zabalik daude. Izen ematea liburutegian egin daiteke, eguenera arte. Antzerkia elkarregaz eta taldean ikustera joatea aukera polita iruditzen zait ohitura bat sortzen hasteko.

Mota honetako tailerra ematen duzun lehenengo aldia da?

Atxondoko antzezlanak zuzendu izan ditut, baina tailerra ematen dudun lehenengo aldia da, bai. Beraz, umeek ikasi egingo dute, baina nik ere asko ikasiko dut eurekin.

Andramari dantza taldeak 40. urteurrena ospatuko du aurten

J.D. MAÑARIA

Andramari dantza taldeak 40 urte egingo ditu aurten. Hori dela eta, Mañariko Udaren laguntzagaz ekitaldi berezi bat prestatuko dute maiatzaren 23rako. Dantza erakustaldia, bazkaria eta erromeria izango dira ospakizun eguneko osagaiak, udalak sareetan iragarri duenez. Dantza taldean ibilitako denak daude gonbidatuta dantza erakustaldian parte hartzera. Euren begira, batzar bat antolatu dute otsailaren 6rako. 18:30ean izango da, osoko bilkura aretoan. Bazkariari dagokionez, aurrerago jakinaraziko dute non erosi daitekeen txartela. Bazkarira edonor batu daitekeela argitu dute.

Otsailaren 8an txitxiburduntzia egingo dute Izurtzan

J.D. IZURTZA

Izurtzan txitxiburduntzia egingo dute otsailaren 8ko domekan. Urteroko ohiturari eutsita, izurtzarrak plazan batuko dira eguerdi inguruan. Izurtzako Udalak sua eta edariak ipiniko ditu herritarrentzat, urtero egiten duen moduan, eta gura duten denek euren janaria eramanez ahal izango dute bertara, surtan erretzeko eta plaza inguruan lagun artean bazkaltzeko. Txitxiburduntzia hainbat belaunalditako herritarren arteko elkargune bihurtzen da urtero, eta, eguraldiak laguntzen badu, plaza inguruan giro ona nagusitzen da, antolatzaileen esanetan.



Durangaldeko Okm gida

Zabaldu zure negozioa lau haizeetara

Durangaldeko OKm gida erakusleho ezin hobea duzu eskualdeko merkataritza eta zerbitzuetan.

Jarri gurekin harremanetan konprometzu barik 688 731 402 telefonoz

Okm: batzen gaituen distantzia

www.anboto.org/gida



OSASUN GIDA

**Podologia**
PSE: 214/06



OINEN ZAINZA ETA TRATAMENDUA
IBILKERAREN AZTERKETA BIOMEKANIKOA
NEURRIIRA EGINDAKO PLANTILAK

Herriko Gudarien kalea, 10 BEHEA
DURANGO, Tel./Faxa: 946 215 404

**Odontologia**
PSE: 26/22



HORTZ-KLINIKA
Kontingentzia Hortz Klinika Durango

DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA,
HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA
ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR
DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.

Ordutegia:
Astelohenetik ostiralera: 10:00 – 14:00 | 16:00 – 20:00
Larunbata: hitzordua hartuta

944 14 80 36 | 626 18 30 30
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango. Bizkaia
www.clinicadentalviteri.com

**Odontologia**
PSE: 145/13



clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA -
INPLANTOLOGIA - KIRURGIA -
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA
IKUSEZINA - ODONTOPEDIATRIA - PADI -
HORTZETAKO ESTETIKA - HORTZETAKO
ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea -
48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

**Fisioterapia**
PSE: 119/13



ZAINDUZ
Fisioterapia • Osteopatia

Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu.
Solo pertsonalizatuak dira,
talde txikietan.

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO
944 657 132 - 686 906 374

**Fisioterapia**
PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

**Naturopatia eta Homeopatia**

Aurora Julià

HOMEOPATIA • NATUROPATIA
OSASUN INTEGRALA

Umeak - Helduak - Nagusiak

Ordua hartzeko:
946 204 218

Txanporta Plaza, behea - Abadiño
www.aurorahomeopata.eus



**Psikologia**



Hezkuntza zailtasunak

Hezkuntza zailtasunen
diagnostikoa eta esku-hartzea,
diskalkulian adituak.

613 038 933
Andra Mari, 16 ID Durango

**Psikologia**



Psikologia

Helduak-nerabeak-haurrak

- Zure buruan konfidantza sendotzeko •
- Estresa kudeatzeko •
- Zure harremanak hobetzeko •

ONLINE ETA AURREZ-AURRE

613 05 38 62
Andra Mari, 16 ID Durango

**Optometria**
PSE: 162/13

NAILA ZABALA
AIZMENDI
11567 kot. zk.



keinu
OPTOMETRIA ZENTROA

- JOKABIDE OPTOMETRIA • HAURREN IKUSMENA
- IKUSMENAREN ENTRENAMENDUA • JATORRIZKO ERREFLEXUAK • FOTOTERAPIA OPTOMETRIKOA
- SENA ENTZUMENAREN ESTIMULAZIOA • KIROL IKUSMENA • GARUNEKO LESIOAK • UKIPEN LENTEAK
- ORTO-K ETA MIOPIAREN KONTROLA

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel: 946 225 099
www.keinuoptometriazentroa.com

Okm: batzen gaituen distantzia

anbotokide



**OTSAILEKO
ZOKKETAK**



Arriolan, (Elorrio) La Senior de Larrua "You have an inner world, so what?" Dantza emanaldirako 2 sarrera. Otsailak 27.



Zelai Hotela (Zumaia): Talaso saloa eta gosaria barne duen birentzako bonua.



Zornotza Aretoa, Golazenen emanaldirako 2 sarrera, 19:00etan Otsailak 14.



Zornotza Aretoa, Zerua lapurtu dute (Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore) salorako 2 sarrera. Otsailak 13.



Xiberu tabernan (Zornotza) bi gosari bikoitz.

EGIN ZAITEZ **ANBOTOKIDE**
ETA PARTE HARTU
GURE ZOKKETETAN!



URTARRILEKO IRABAZLEAK

Basa take away jatetxea
Oier Buruaga Barcena.

Arriola Antzokia
Idoia Elorriaga Etxebarria.

Areatza bainuetxea
Endika Blanco Bravo.

Xiberu Taberna
Jon Badiola Totorikaguena
eta Joseba Berriotxoa Alberdi.

Zebrabidea ipini gura dute N-634an, Traña-Matienan

Abadiñoako Udala eta Bizkaiko Foru Aldundia lanean dabilta Traña-Matienan, Laubideta inguruan, N-634 errepidearen bi ertzetan dauden geltokien irisgarritasuna eta segurtasuna bermatzeko. Lan hauetarako, 350.000 euro baino gehiago erabiltzea aurreikusten dute

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Bizkaibussen A3512 lineak Traña-Matienako San Blas autobus geltokian egiten du geldialdia. Gaur egun irisgarritasun arazoak daude bertara heltzeko, eta Abadiñoako Udala eta Bizkaiko Foru Aldundia lanean dabilta hori konpontzeko. Izan ere, N-634 errepidearen bi ertzetan dauden geltokiak azpiko pasabide zahar baten bitartez daude lotuta, eta pasabide horrek ez ditu irisgarritasun baldintza egokiak betetzen.

Abadiñoako Udalak jakinarazi duenez, lanean dabilta "erabiltzaile guztientzat sarbide seguru eta irisgarria bermatzeko". Zenbait alternatiba aztertuta eta baloratu ondoren, Azpiegitura eta Lurralde Garapenerako Sailagaz N-634 errepidean zebrabide bat ipintzea aurreikusten dute, semaforo bategaz. "Pasabide horrek geltoki biak modu zuzenean eta seguruan lotuko ditu, eta mu-



N-634 errepidean egin gura dituzten lanen infografia.

gikortasun urriko pertsonen zein adinekoen sarbide segurua izatea bermatuko du", azaldu dute.

Hori horrela, proiektuak lehenetik dauden espaloiak handitzea eta egokitzea ekarriko du, bai-

ta Laubideta kaletik sarbide berri bat sortzea ere, arrapala bategaz, besteak beste.

N-634 errepidean egin gura dituzten lan hauetarako, 350.000 euro baino gehiago erabiltzea aurreikusten dute.



IAZKO EDIZIOKO ARGAZKI BAT.

Auzo-taxiko txartela eskatu eta berritzeko beharra Mallabian

M.Z. MALLABIA

Mallabiko Udalak prentsa ohar bidez herritarrei gogorarazi die auzo-taxi zerbitzua erabiltzeko beharrezkoa dela identifikazio txartela eskatzea. Udalak jakinarazi du txartela pertsonala eta besterenezina dela, eta 2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra egongo dela erabilgarri.

Hori horrela, zerbitzu hau erabili gura duenak txartela eskatu edo berritzu beharko du. Horretarako, udalaren bulegoetara joan beharko da, eta honako agiri hauek aurkeztu: NA-Naren fotokopia eta argazki bat (gidabaimeneko argazkiaren tamainakoa).

Kandelerio Egunerako prest

Otsailaren 2an, San Blas bezperan, abadiñarrek hitzordua dute eguna luzatu dela eta sasoi honetan negua biguntzen hasten dela iragartzen duen *Kandeleridxo* kanta abesteko. Iaz berreskuratu zuten ohitura, eta aurtengo ere dagoeneko ipini dute hitzordua; otsailaren 2an, 19:00etan, Ferialekuan.

Maiztegiko jolastokia berrizteko egitasmoa onartu dute lurretan

Egitasmoak 1,7 milioiko aurrekontua du eta hiru fasetan garatuko da. Azken faseko obrekin hasi gura dute

Aitziber Basauri IURRETA

Maiztegi herri eskolako jolastokia eraberritzeko proiektua onartu dute Iurretan. Hiru zatitan gauzatuko da, 1,7 milioiko aurrekontuagaz; beti ere, Eusko Jaurlaritzak lankidetzaz hitzarmena onartuz gero. Azken fasea gauzatuko da lehenengo (731.600 euro): ume txikientzako jolas-gune berria eta aterpe bat egokituko dituzte. Inbertsioari aurre egiteko, udalak %60ko diru laguntza eskatu du Jaurlaritzan. "Oso proiektu inportantea eta polita da. Hala ere,

Jaurlaritzaren diru laguntza behar dugu gauzatzeko. Herrian hainbat premia dago eta denak kontuan hartu behar ditugu", esan du Oskar Koka alkateak. Udal gobernuak lanak udan hastea gura luke. Kokak esan du 7-8 hilabete beharko direla horiek gauzatzeko.

Aho batez onartu dute egitasmoa. EH Bilduk arrazoitu du "lehen-tasun politiko, pedagogiko eta sozial argia" dela. Baina gobernu taldearen jarrera kritikatu du, lanen exekuzioa Jaurlaritzaren diru laguntza lortzera lotu due-



Maiztegiko eskolako jolastokia. MAIZTEGI GURASO ELKARTEA

lako: "Jolastokiaren proiektua babesten dugu, zalantzarik barik, eta ahalik eta azkarren gauzatzeko premia dago, 3. fasetik hasita. Udalari eskatzen diogu obrak baliabide propioekin gauzatzeko konpromisoa hartzea,

diru laguntza heltzen ez bada ere". Onarpena "berandu" datorela diote, udal gobernuak ez duelako proiektuaren garapena "ganoraz" kudeatu. PSE-EEk "oso larria" deritzo proiektua iaz onartu ez izanari.

Zaldaik mendi taldearen sortzaileak omenduko ditu lurretan

A.B. IURRETA

Iurretako Zaldai mendi taldeak urteurren borobila du aurten. 25 urte bete dira taldeak lehenengo pausoak eman zituenetik herriko gazte batzuen ekimenez, Abadetxearen aterpean. Urtarri-laren 30ean, Iurretako IX. Mendi Astearen barruan, ekitaldia egingo dute gazte haien lana aitortzeko. Abadetxea erre ondoren lekukoa hartu zuen taldearen lana ere aitortuko dute, eta urte hauetan guztietan boluntario ibili diren mendizale guztien laguntza ere eskertuko dute. Ekitaldia Askondoko aterpean izango da, 18:30ean. Ondoren, Zaldai 2025 Mendi Erronkako sari ematea egingo dute.

Arantza Baigorri Zaldibarko alkate ohia inputatu dute

Eitzagako zabortegian ustez prebarikazio urbanistikoa egin zuelakoan inputatu dute, beste zortzi pertsonagaz

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Eldiario.es hedabideak jakinarazi duenez, Durangoko epaile batek Zaldibarko alkate ohia eta beste zortzi pertsona inputatu ditu Verter Recycling zabortegian ustez "prebarikazio urbanistikoa" egin zutelakoan. Bederatzi dira inputatuak: Arantza Baigorri alkate ohia (2011tik 2018ra egon zen jardunean), udaleko arkitekto bi, udaleko kontu hartzaile-idazkaria, zabortegiko hiru arduradun eta aholkularitza enpresa bateko teknikari bi. Baigorriren kasuan, epailea "prebarikazio urbanisti-



Arantza Baigorri.

korik" egin ote zuen ikertzen dabil. Uste horren arabera, "urbanizazio plangintzaren baten edo txostenen baten aldekotasuna" agertu ahal izan zuelako "nahiz eta bidegabea zela jakin", edo "nahitaezko ikuskapenak egin ez edo ikuskapenetako arau hausteen berririk eman ez zuelako". EH Bilduk ohar bat zabaldu du horren harira. "Zaldibarko Udalen 2011tik 2019ra bitarteko jarduerak udal zerbitzu teknikoaren irizpide eta gomendioen arabera" garatu zirela esan dute, "udal arkitektoa eta kontratatutako aholkularitza teknikoak barne". Eta jakinarazi dute Aldundiak Hiri Antolamendurako Plan Orokorra "inolako ñabardurarik barik" aldatzea "bermatu" zuela. Koalizioak esan du "erantzukizunez, gardentasunez eta erabateko lankidetzaz" jokatu duela.

Garaiko nagusiak Santa Ageda koplak abestera irtengo dira

E.H. GARAI

Otsailaren 4an, eztarriz sano daudela eta gogotsu kantatu gura dutela adieraziko dute Garaiko Nagusien elkarteak Santa Ageda koplak abestera irtengo da, eta egitasmoan parte hartzera deitu ditu herritarrek. 20:00etarako ipini dute ordua, herriko plazan. Kantaldia behar den moduan prestatu dute gainera, aste honetan entseguak egiten ibili dira-eta kultur etxean.

Nagusien elkarteak ahalegin handia egiten dabil ohitura hau berreskuratzeko. Izan ere, elkarteak kideak iaz hasi ziren berriro Santa Ageda eskean, 45 urtean koplak kantatzera irten barik egon eta gero.

Ur kontsumoa 2 milioi litro jaitsi da Otxandion, hiru urtean

A.B. OTXANDION

Otxandion bi milioi litro jaitsi da urteko ur kontsumoa azken hiru urtetan; 86,6 milioi litrotik 84,6 milioira, hain zuzen ere. Hala jakinarazi du udalak. Uraren kudeaketa osoa udalak kudeatzen du, eta ur kontsumoaren "kontrol eta zaintza zuzena" ahalbidetzen du. "Sarean egindako inbertsio eta jarraipen lanari eskerrak, ur ihesak gutxitu dira, sarearen eraginkortasuna handitu da eta uraren erabilera arduratsuegia bultzatu da", azaldu dute. "Uraren kudeaketa egokia funtsezkoa da ingurumena babesteko eta etorkizunerako baliabide iraunkorrak bermatzeko", gaineratu dute.

Aurrematrikulazioa
Otsailaren 2tik 13ra

@landakoeskolapublikoa

Etor zaitez
gu ezagutzera!

LANDAKO ESKOLA PUBLIKOA
Hazi, hezi, hegan egin

landakoeskola.org · 944 280 174



Nekazariak kalera, EBren eta Mercosurren itunaren aurka

Bizkaiko nekazariak probintzia-ko errepideak eta Bilboko kaleak hartu dituzte Europako Batasunaren eta Mercosurren arteko akordioa salatzen. Bizkaiko EHNE eta ENBA sindikatuek mobilizaziora deitu zuten egue-
nean, eta Durangaldeko hainbat baserritarrek parte hartu zuen. Sindikatuen berbetan, Europar Batasunak Mercosurren egin-

dako itunak nazioarteko merkatua indartuko du, eta horrek barne mekartua ahuldu eta belaunaldien erreleboa oztopatzen du. Sindikatuen ustez, ezinbestekoa da elikadura burujabetzan oinarritutako merkataritza esparru bat ezartzea eta osagarritasunean oinarritutako elikadura merkataritza eredu berria eratzea.



DURANGALDEA ASTEON

'Promesarik txikiena' antzezlana Atxondon

ATXONDO Atxondoko frontoian Infinitudrama konpainiaren *Promesarik txikiena* antzezlana taularatuko dute, otsailaren 1ean, 19:00etan. Antzezlana Udalbiltzak bultzatutako Geuretik Sortuak bekaren barruan sortu da. Sortzaileek honela azaldu dute obraren muina: "Antzezlana zirrikitu bat da, laguntasunetik abiatuta komunitateari eta hartu-emanen erreparatzeko saiakera poetikoa".



Dantza egonaldiak Urkiolako parke naturalean

ABADIÑO Aiko taldea bere 20. urteurrena ospatzen dabil eta egitasmo berezi bat egingo du Urkiolako Parke Naturalean: maiatzaren 21ean eta 22an *Dantza egonaldiak* eskainiko dituzte Urkiolako Hotelean. Antolatzaileek iragarri dutenez, dantzan ikasteko saioak eskainiko dituzte zapatuan eta domekan. Halaber, otorduak eta lo egiteko lekua ere eskainiko dituzte. Interesdunek 622 589 632 telefonoan erreserbatu dezakete ikastaroa eta egonaldia.



JAEDen sari banaketako argazki bat.

Francisca Painok irabazi du JAEDen autoa

DURANGO JAEDeko zozketa solidarioko Dacia Sandero autoa errepidean da dagoeneko. Irabazlea Francisca Paino durangarra da eta joan zen barikuan jaso zituen kotxeko giltzak elkarteko ordezkarien eskutik, Gaurisa kontzesionarioan egindako ekitaldian. JAEDek urtero egiten du zozketa solidarioa, gabon sasoian. Aurten errekorra gainditu dute. 80.000 txartel ipini zituzten salgai, inoiz baino gehiago, eta denak saldu zituzten.

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - lurreta
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



POLITIKAN

PAULE SANCHEZ
EAJ

Obrak mintzo dira

2026. urteak mugarri bat markatuko du Durangoko Arte eta Historia Museoaren historian. Izan ere, Etxezarreta Jauregia 1986ko ekainaren 13an ireki zen. Leopoldo Zugazaren proposamenez eta Patxi Zurikarai eta Juan José Ziarrusta tokiko buruzagien laguntzarekin, garai hartan alkatea eta kultura zinegotziak zirenak, biak EAJko kideak, Durangoko Udalak erakina eskuratu eta museo gisa erabiltzeko berritu zuen. Museoak lau hamarkada hauetan gizartearekin batera eboluzionatu du, eta kalitatezko programa egonkorra eskaini eta bere eginkizuna galerietatik haratago zabalduz dihardu gaur eguneko ere. Hezkuntzarekin eta dibulgazioarekin konprometitutago. Doako tailerrek, ikastaro anitzek, hitzaldiek eta bisita gidatuek,... kultura irisgarria izatea ahalbidetzen dute. Durangoko Arte eta Historia Museoa sektorean erreferente bihurtu da eta hori ez da magia kontua, ezta kasualitatearen emaitza ere. Museoa sektoreko figura nabarmen bihurtzea arduradun teknikoen lan sutsu eta bokazionalaren eta kultura zerbitzu publiko gisa hartutako etengabeko konpromiso politikoaren emaitza argia da. Badira Durangon EAJ-koon kudeaketako 40 urteotan ezer egin ez den mantra behin eta berriz errepikatzen dutenak, baina egitateek lelo hori gezurtatzen dute. Museoan ere, obrak mintzo dira.

> anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 lurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Marketina: Defie Izaga Yeregui.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

SAN BLAS EGITARAUUA 2026



SAN BLAS EGITARAUA

URTARRILAK 30

18:00 Umeentzako diskofesta eta pintxopotea Elkartasun lonjan.

19:00 Antzerkia Txanporta Kultur Etxean: Euskaldungak. Sarrerak 3 euroan eskuratu daitezke Errota Kultur Etxean eta Udal Mediatekan.

21:00 Bertso afaria Gaztañodi elkarteak: Nerea Ibarzabal eta Maialen Lujanbio.
Txartelak salgai Petite liburu denda eta Lagun Toki tabernan.

URTARRILAK 31

14:30 Bazkari herrikoia (maleta siku) frontoian.

18:00 Abadiño IV. Esku Pilota Txapelketa Herrikoiko finalak.

21:00 Kontzertua txosnagunean
Fito Skins
Aiama
Ganibet

22:30 Kontzertua Elkartasun lonjan
Dj Kool
Dj Kuku + Dj Kene

01:00 Gaztetxean
Xirimiri.mj

OTSAILAK 1

17:00 Ikuskizuna frontoian: 'Welcome & Sorry' (Ganso & Cia taldea).

OTSAILAK 2

17:00 Mus txapelketa frontoian.

19:00 'Kandeleridxo' abestia herrian zehar

OTSAILAK 3

Goiz osoan, zaldiak moztu eta ferratzeko erakustaldia ganaduaren gunean.

10:00 Txistularien kalejira Txanbolin taldeagaz.

10:30-13:45 Gazta dastatze komentatua azokan.

11:00-12:15 Euskal ardi txakurren erakustaldia ganaduaren gunean.

12:00 Bertsolariak Ferialeku plazan.

Txaber Altube, Garikoitz Sarriugarte eta Bittor Altube.

12:00 Herri kirolak probalekuan.

Aizkolariak · Abadiño San Blas kopa: Iker Vicente, Mikel Larrañaga, Julen Alberdi 'Txikia IV.a', Hodei Ezpeleta 'Bihurri', Oihana Fernandez de Barrena, Uxue Ansorregi eta Irati Astondoa. Harrijasotzailea: Izadi Agirre.

17:00 Erromeria Ferialeku plazan.

Muxutruk

17:00 Kontzertua Elkartasun lonjan.
Dj Bull

18:00 Zaldi probak



Abadiño San Blas azoka
Azoka 130 produktorek eta 110 abelburuk osatuko dute.
Zelaieta, 09:00etatik 14:00etara

Gaztetxean

19:30 - 22:00 DJ Txola Ta Potxola
22:00 - 00:30 DJ Oto
00:30 - 03:00 Alloxets.mj

21:00 Kontzertua txosnagunean
Dj Reimy

OTSAILAK 5

18:00 Jakoba Errekondoren hitzaldi-solasaldia Txanporta Kultur Etxean.

Gonbidapenak Errota Kultur Etxean eta Udal Mediatekan, otsailaren 4ra arte (gehienez lau gonbidapen pertsonako).

OTSAILAK 6

17:30 Abadiño Inauterien aurkezpena Txanporta Kultur Etxean: Anbotoko Damie eta Kokomarro.

OTSAILAK 7

09:00 XXXVI. Burduntziko Bildots Txapelketa.

14:00 Bildots bazkaria probalekuan.



OLIO ALDAKETA
PNEUMATIKOAK
marka guztiak
BALAZTA-PASTILLAK
MOTELGAILUAK

Urribarte Industriegunea, 6 MATIENA-ABADIÑO
Tel.: 946 232 520
@neumaticosetxebarria



→ euskal
markak hazten
diren lurra

www.sorland.eus · info@sorland.eus

sorland

Kaixo Abadiño!

Badator San Blas! Ondo pasa jaietan!



"San Blas saltzeko azoka da; jendea erostera joaten da"

JOSEBA SOLOZABAL ETA ENERITZ LAPAZARAN ORBEGOIKOA OKINAK

Solozabalek eta Lapazaranek iazko estreinaldiko arrakasta errepikatu gura dute aurten. Hainbat motatako ogiak eta palmerak, sanblasak eta euskal pastelak salduko dituzte

Joseba derteano ELORRIO

Iaz estreinakoz ipini zuten postua. Aurten ilusio berdinagaz bueltatuko dira. Bikotearentzat feria hau ez da saltzeko lekua bakarrik, erakustoki ezin hobea ere bada.

Iaz izan zenuten lehenengo esperientzia San Blas azokan. Zelan bizi izan zenuten?

Joseba Solozabal: Egia esanda, oso ondo. Asko saldu genuen, eta bizkor gainera. San Blas azoka oso ona da saltzeko. Beldur apur batez joan ginen, postu asko egoten delako, baina jende asko ibiltzen da. San Blas azoka handia da, eta, gainera, jendea erostera joaten da. Generoa eraman eta saldu



Joseba Solozabal eta Eneritz Lapazaran, seme-alabekin.

egiten da eta hori garrantzitsua da.

Aurten zein itxaropenagaz zoazte?

J.S.: Apur bat beldurrez egon gara behi eta idien kontuagaz. Idi probarik ere ez da egongo. Hala ere, zaldiak eta behorrak egongo dira, baita ardi txakurren txapelketa berri bat ere. Eguraldiak laguntzen badu, jendea joatera animatuko dela esango nuke. San Blas San Blas da, eta beste ekintza batzuk egongo direnez, jendea etorriko da.

Zer eskainiko duzue?

Eneritz Lapazaran: Hiru-lau ogi mota eramango ditugu. Horrez gainera, gure espezialitateetako bat diren palmerak egongo dira: hostorezkoak eta txokolatezkoak. Iaz oso ondo saldu genituen. Jakina, sanblasak ere izango ditugu, eta euskal pastela ere bai. Kantitateari dagokionez, ezin dugu askoz gehiago eraman; azken finean, lagun bi gara eta obra-dore txiki bat daukagu. Ahal duguna saltzen dugu eta horregaz pozik gaude.

Azoka baliagarria da bezero berriak egiteko?

E.L.: Bai. Guk etxean bertan

saltzen dugu apur bat, baina gehiena denda txikietan banatzen dugu. Orduan, beti ez dugu jakiten nork erosten duen gure ogia. Azoka erakustoki ona da: aurpegia ipintzen diezu bezeroei, eta jende berriak ere ezagutzen zaitu. Durangaldean, norbera ezagutzera emateko eta proba berriak egiteko ere balio du. Ez da bakarrik saltzea; zure izena eta produktuak erakustea ere garrantzitsua da.

Zelan doa zuen negozioa? Pozik zaudete?

J.S.: Pozik gabilta. Gurea ez da enpresa handi bat, familiako negozio txiki bat baino, pertsona biren artean daramaguna. Baserrirako diru iturri bat da, azken batean. Durangaldeko hainbat denda txikitan saltzen dugu, Atxondon, Elorrian, Abadiñon eta Durangon. Elgetan ere saltzen dugu. Jendeak harrera ona egin digu eta pozik gaude. Gazteei esan gura diet baserrian badagola etorkizuna lan egin gura duenarentzat. Ideia bat eta lanerako borondatea badituzte, probatzera animatzen ditut. Jendeak baloratzen duen lana da, eta saltzen da.

SERRATU S.L.
Ondo para San Blas-etan!
Galdaragintza eta itxierak
Enpresetan mantentze-lanak
Astola, 48 ABADIÑO - Tel.: 946 201 837
serratu@serratu.com - www.serratu.com

**APAINGARRI
ETA INDUSTRIALA**

Pinturas Sagasta Pinturak

**FATXADETA KO
PROIEKTU BEREZIAK**
**ERA GUZTIAKO
BARNE ETA KANPOKO
DEKORAZIOAK**
Sagasta auzoa - Anbe Goikoa
ABADIÑO
Tel.: 629 143 944

**Talleres
Serafín**
S. Coop

Elorriagazar, 11
MATIENA-ABADIÑO
Tel.: 946 814 807

OSORO
FISIOTERAPIA
Andra Mari Kalea, 3
688 78 69 36

**MURUETA
BASERRIA**
NEKAZALTURISMOA

Murueta, 4 ABADIÑO
Tel.: 658 747 471

ZAINDU HAGIN KLINIKA
Odontologia orokorra eta espezialitateak

Urmeentzako odontologia • Ortodontia (P.A.D.I. programa)
Implanteak • Periodontia • Aho-estetika • Protesiak • etab.

Mari Tere Zamalloa Juaristi
Periodontian espezializatua • Col.1005

Ferialeku, 1 • Abadiño
Tel.: 94 465 73 42



Edurne Maguregi eta Mikel Urrutia.

Abadiño prest nobedadez jositako San Blas eguna hartzeko

Nobedaren artean, Aizkolarien I. San Blas Kopa, ardi txakurren erakustaldia eta Euskal Herriko gazta desberdinen dastatzea daude, besteak beste. Aurten ere autobus zerbitzua egongo da Traña-Matienatik Zelaietara, azoka gunera bertaratzeko

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Badator otsailaren 3a, eta, horregaz batera, Bizkaiko eta Euskadiko azoka erreferentetarikoa bat den San Blas feria. Behien artean zabalduetako dermatosi nodular kutsakorra ez hedatzeko Jaurlaritzak ezarritako debekuak bete-betean eragingo dio Abadiñoko azokari, ez baita ez behirik ez idirik egongo. Baina Abadiñoko Udalak jakinarazi du buru-belarri lan egin dutela horrek azokan "ahalik eta eraginik txikiena" izateko. "Lanketa berezia egin dugu, eskaintza erakargarria izateko. Egitarau zabala antolatu dugu, hainbat nobedadegaz", esan du Mikel Urrutia Abadiño-ko alkateak.

Zenbait nobedade izango den arren, San Blas eguneko protagonista nagusia eta bihotza azoka bera izaten da, eta izango da; bertan, 130 ekoizle eta 110 abelburu batuko dira. Urtero legez, trinket inguruan nekazaritzako produktuak egongo dira, Ferialekuan artisautzakoak, eta Gaztañodien makinaria, besteak beste.

Jaurlaritzako debekuak gaudu azokan izango du eraginik handiena. Aurten zaldiak, ardiak eta astoak egongo dira, besteak beste. Baita zaldi arabiarak eta angloarabiarak ere. "Gainera, Abadiñora bertaratzen direnek zaldi bat zelan perratzen den ikusteko aukera izango dute", azaldu du Edurne Maguregi alkateordeak.

Dastatzea eta erakusketa

Aurten hainbat nobedade egongo da azokan. Alde batetik, Euskal Herriko gazta desberdinen dastatzea egongo da. Hiru saio egongo dira: 10:30ean, 12:00etan eta 13:00etan. Dastatzeetarako, aurrez izena eman beharko da.

Bestetik, ardi txakur erakusketa egongo da. 11:00etan hasiko da, jubilatuen tabernaren aurreko landan. Bertan, Carlos Ardanazak, Kepa Ardanazak, Aitor Urienek, Jose Miguel Etxebarriak eta Jose Angel Azkorbebeitiak parte hartuko dute.

Probalekuko zitak

Azoka guneari gainera, probalekua ere gune inportante bilakatzeko da otsailaren 3an. Hemen

Luzia
hitzorduekin
610 28 76 32

Masajeak
Osteopatia
Kinesioologia
Kranio-sakral
biodinamika

Artoluzabal kalea, 6 - Abadiño

ENGLISH CORNER
Abadiño

- CAMBRIDGE AZTERKETEN PRESTAKETA**
FIRST (B1)
ADVANCED (C1)
PROFICIENCY (C2)
BUSINESS ENGLISH
ZIURTAGIRIAK (BEC)
- HEO AZTERKETEN PRESTAKETA**
- KLASEAK ENPRESETAN:**
OROKORRA & BUSINESS ENGLISH
- ESKOLA ERREFORTZUA**

SOLOKOA, 4 - 661 048 674
englishcornerabadiño@gmail.com

GISASOLA PENTSUAK
EKOGARDEN
FLORES - FIENOS - HERBIA

GISASOLA PENTSUAK
EKOGARDEN
LORAK - PENTSUAK - BARATZA
TRAÑA - MATIENA - ABADIÑO - BIZKAIA
TEL: 94-681-66-87
C/ ZUBIBITARTE 14
E-mail: gisasola.p@gmail.com

BASQUE COUNTRY .BIKE

Iturritxo kalea, 3
ABADIÑO
Tel: 688 69 08 15
www.basquecountry.bike
info@basquecountry.bike

f i

DIBA
KOOPERATIBA

Durangaldeko
Baserritarren
Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

ABADIÑOKO BATZOKIA

Ondo pasa
San Blas jaietan!

Ferialeku plaza, 3

eaj
pnv
ABADIÑO

ere hainbat nobedade egongo da. 12:00etan, esaterako, Aizkolarien I. San Blas Kopajokatuko da. Bertan, Euskal Herriko puntako aizkolariak batuko dira: Iker Vicente, Mikel Larrañaga, Julen Alberdi Txikia IV.a, Hodei Ezpeleta 'Bihurri', Oihana Fernandez de Barrena, Uxue Anso-rreri eta Irati Astondoa. Horrez gainera, harri jasotze erakus-taldia ere egongo da. Bertan, Izadi Agirre abadiñarrak parte hartuko du.

Arratsaldean, zaldi probek idi probei hartuko diete lekukoa. Zaldi bi lehiatuko dira Abadiño-ko probalekuan, 18:00etan.

Autobus zerbitzua

"Herritarrei eta inguruko herrie-tako jendeari bertaratzeko deia egiten diegu, giro ederra egongo da eta", esan du Maguregik. Azken urteetan legez, autobus zerbitzua egongo da Zelaietara bertaratzeko. Autobus bi joan-etorrian ibiliko dira Traña-Matienatik Zelaietara, 09:00etatik 16:00etara bitartean.

Egitarau zabala

San Blas jaiak ez dira otsailaren 3ra bakarrik mugatzen, eta aba-

diñarrek egitarau zabala anto-latu dute. "Jai hauen antolakun-tzan ibili diren norbanako, eragile eta udal langile guztiei eskerrak eman gura dizkiegu, horrelako egitarau zabala anto-latzearren", adierazi du Mikel Urrutia alkateak.

Gaur emango diete hasiera jaiei, urtarrilak 30, umeentzako diskofestagaz, antzerki saioagaz eta bertso afariagaz. Urtarrila-ren 31n bazkari herrikoia egon-go da frontoian, eta esku pilota txapelketa herrikoiko finalak. Gauean Fito Skins, AiAma eta Ganibet taldeak arituko dira txosnagunean, eta DJ Kool, DJ Kuku eta DJ Kene elkartasun lonjan.

Otsailaren 1ean eta 2an *Welcome & Sorry* ikuskizuna eta mus txapelketa egongo dira, hurrenez hurren. Otsailaren 5ean hitzaldi-solasaldia egongo da Jakoba Errekondogaz, eta otsailaren 6an Abadiño Inau-terien aurkezpena egingo dute. Urtero legez, Burduntziko Bil-dots Txapelketagaz emango diete amaiera jaiei, otsailaren 7an. Probalekuan egingo dute bildots jana.



Panarrako kideak iazko azokan.



Behiak San Blas ferian.



Etxez etxeko okela salmenta astero

618 439 054 Ibon Lasuen | 620 321 184 Esther Ugaldea

MIKEL HARATEGIA

Eskolakua, 2 Tel: 946 815 452
48220 ABADIÑO



ORDUTEGIA

Astearte eta ostegunetan:
08:30 - 13:00 eta 17:00 - 19:00
Asteazken, ostiral
eta larunbatetan:
08:30 - 13:30

Elur Arraindegia
Zeletabe, 19 Abadiño
T. 649 597 187



- Geure hondakindegia dugu.
- Harrobiekako materialen banaketa.
- Obra-hondakinak eta industriako hondakinak kentzen ditugu.
- Industriako eta obretako hondakin inerteen kudeaketa.

Astola auzoa, 68 • 48220 ABADIÑO
Tel.: 646 247 350 / 946 814 107 • info@contenedoreserlia.com



LASUEN

ERAIKUNTZA · OBRA ZIBILA · ZABORTEGIAK



CONSTRUCCIONES LASUEN

Astola auzoa 68
48220 Abadiño, Bizkaia
Tel.: 946 81 40 36
clasuen@lasuen.com
www.construccionelasuen.com





Eibarko Krabelin lagun taldea, 2017an, Durangon, Abadiñoako sanblasetan egon eta gero. Julian Etxeberria eskumatik hasita bigarrena da. KRABELIN TALDEA

Eibartik sanblasetara berriro oinez etortzeko prest daude

Eibarko Krabelin lagun taldeak 20 urte beteko ditu urtero-urtero Eibartik Abadiñoako San Blas egunera oinez etortzen. Mendizaletasuna dute pasio, eta atsegin handiz bizi dituzte sanblasak, bai Abadiñon bai euren jaioterrian. Feria bisitatuta, Durangon bazkalduko dute

Ekaitz Herrera ABADIÑO

Eibartarrak dira. Udalerrri horretako Deportibo klubeko kideak gehienak, eta jubilatuenak den-denak. Eta aurten ere prest daude otsailaren 3an Eibartik Abadiñoako feriara oinez etortzeko. "Hogeit bat urte daramatzagu joaten", azaldu du Julian Etxeberria lagun taldeko kideak. "2006 bueltan hasi ginen, guta-

riko batek 'Zergaitik ez gara Eibartik Abadiñoako sanblasetara oinez joaten?' galdetu zue-nean. Izan ere, kuadrillako kide batzuek Abadiño bueltako tailerretan lan egiten zuten, eta behin jubilazioa hartuta auke-ra ederra ikusi genuen lehen egin ezin genuena egiteko: sanblasetako feriaz gozatzeko", esan du eibartarrak.

Hasierako urteetan mendirik mendi egiten zuten Eibartik Abadiñorako bidea. "Baina azken urteetan errepide ondotik egiten dugu: Zaldibar, Berriz, Abadiñoako Lebario auzoa eta Zelaieta", zehaztu du Etxeberriak. Edozelan ere, behin Ferialekura eta Txanportara ailegatuta, argia izaten da kuadrillaren plana: "Hamaiketako egiten

dugu lehenengo: taloa, salda eta txikito pare bat. Gero, feria ikustera joaten gara. Eta Abadiñoako tabernak jendez beterik egoten direnez, Durangora joaten gara, oinez, han bazkaltzera. Azkenik, trenaz bueltatzen gara etxera", argitu du.

Abadiñoako azoka jendetsuaz gainera, Etxeberriak gogorarazi du Eibarren ere tradizio handia dagoela San Blas egunaz gozatzeko. San Blas opila da horren lekuko, gozo horrek Eibar eta Debabarrena eskualdean du jatorria eta. "San Blasen bueltako bazkarietan eta afa-rietan ezin da opilik falta post-trerako. Ederra da kafesnetan bustita hartzeko!", adierazi du Etxeberriak.

Krabelin taldea

Lagun taldeko kideek mendia dute pasio, eta astero-astero

egiten dute hitzordua handik-he-mendik mendi bueltaren bat egiteko. "Hasieran bi edo hiru batzen ginen, baina urteak igaro ahala jendea jubilatzen hasi zen, eta gaur egun hogeit bat lagun batzen gara irteeretan", azaldu du Etxeberriak. Taldearen izena ere apropos-aproposa dute: Krabelin. Eibar gaineko eta Arrate ondoko mendi mui-noaren omenez. Besteak beste, 2022an Euskal Herriko 200 mendirik ederrenen katalogoa aurkeztu zuten, tontor bakoitzera igotzeko ibilbideak, *track* pistak eta argazkiak zehaztuta.

"LEHEN MENDIRIK MENDI EGITEN GENUEN BIDEA; GAUR EGUN, ERREPIDE BAZTERRETIK"

elebe
ileapaindegia

Solarium bertikala
Masaje lasaigarria
Ile-apaindegia
Estetizista

Iturritxo, 2 behe
ABADIÑO
Tel.: 946 550 105

**ABADIÑO
ESTANKOA**

Iturritxo, 2B behe - 48220 Abadiño
Tel.: 946 201 385

**Larrano
taberna**

Tel.: 604 938 047



Edu Baro, Itsaso Leaniz, Lolo Carrera eta Apeto Aizpuru. NAIARA GARCIA BOLUMBURU

"Føsil sorkuntza propiorako espazioa izatea gura dugu"

Itsaso Leaniz eta Edu Baro FØSIL

MUSIKA Durangaldean talde berria dago martxan: Føsil; Itsaso Leaniz (ahotsa), Edu Baro (gitarra), Apeto Aizpuru (baxua) eta Lolo Carrera (bateria) kideek osatzen dute

Aritz Maldonado DURANGALDEA
Musikagintzan ibilbide luzea duten Durangaldeko lau kideek proiektu berri bati ekin diote orain: Føsil. Urte bi inguru entsegu lokalean eman eta gero, euren musika publikoarengana zabaltzen hasi dira jada. Formula bakarra dute lanerako, seriotasunez entseatzeari: "Konsistenteak gara lanean, ia astero goaz entsegu lokalera". Otsailaren 5ean Bilboko Nave 9 aretoan joko dute, Rosa Sparks talde portugaldarragaz batera.

Esperientzia handiko musikariak zarete. Aurretik izan duzue proiekturik elkarregaz? Zelan sortu duzue Føsil?

Edu Baro: Martxoan urte bi egingo ditugu elkarregaz. Lolo, Itsaso eta hiruok elkartu, talde

"AMARAUNOKO DEBUTOKO KONTZERTUAN EROSO EGON GINEN; ATSEGINA IZAN ZEN"

bat osatu eta musika elkarregaz sortzen hastea erabaki genuen. Gero batu zen Apeto.

Argi zenuten punka jorratuko zenutela?

Itsaso Leaniz: Bai, gutxi gora-behera bai. Bakoitzaren ibilbidea ikusita, beti izan ditugu punk edo hardcore doinueta taldeak, beharbada baita rocka ere, baina argi genuen ez genuela beste inoren antzik izan gura, edo erreferente argirik izan gura. Gura dugun hori egin gura dugu.

"Sentimenduetatik sortutako musika" egiten duzuela diozue sare sozialetan.

E. B.: Punka da, hardcorea da, eta, azken finean, hori pasiotik sortutako musika da, ezta? Ez da azalekoa, ez behintzat gure kasuan. Erraiaietatik irteten zai-gun musika da. Ibilbide luzea dugu, eta esperimentatzeko tar-tea ere hartu dugu, baina, zelanbait esateko, ahuntzak beti jotzen du mendira. Punk eta hardcore doinuetaik beste norabaitera goaz, baina ez dakigu nora. Bai musika eta bai hitzak erraiaietatik sortutakoak dira.

I. L.: Ez dugu formula batetik sortu gura, "funtzionatu dezan". Sorkuntza propiorako espazio bat da hau, eta guk gustuko duguna egin gura dugu, eta sorkuntza horretan disfrutatu ere bai, noski. Eta hortik abiatuta jendeak gustuko badu, ongi. Eta gutariko bakoitzak ibilbide bat duen arren, iruditzen zait proiektu hau bere identitate propioa hartzen dabilela.

Abadiñoko Amaraun Arte Fabrikan jo zenuten estraineko kontzertua. Zelan joan zen?

E. B.: Polita izan zen. Gainera, arazo batzuk izan genituen eta pozik gaude arazo horiek gainditzeko gai izan ginelako. Gure espektatibak bete genituen, oso ondo pasatu genuen, barre egin genuen, eta uste dugu hori orokorra izan zela; beraz, pozik.

I. L.: Oholtza gainean ondo konpondu ginen, eroso egon ginen. Dibertigarria eta atsegina izan zen, eta zaleen alde-tik ere hori jaso genuen. Azken finean, jendearengana heldu gura dugu, kontzertuak jotzen jarraitu gura dugu, eta abesti berriak sortzen. Bide onetik goazela iruditzen zait.

Zergatik Føsil izena?

E. B.: Izen tinkoa iruditu zitzai-gun. Ondo zetorkigula ere, eta, gainera, bakoitzak bere pelikula sortu dezake ea zein interpretazio duen.

Abesti propioak jotzen dituzue kontzertuetan. Baduzue asmorik horiek disko batean kaleratzeko?

I. L.: Oraingoz gure bideo batzuk baino ez daude Youtuben, *Oihu!*

"GÜSA HURBIL IZATEAREN PRIBILEGIOA IZAN DUGU, ASKO INPLIKATU DELAKO"

eta *Bost pozoi* abestien zuzene-koenak. Dena dela, udan sei abesti grabatu genituen, baina oraindino ez ditugu publiko egin. Berandu baino lehen, abesti horietako bi zenbait plataformatan publikatuko ditugu, baina oraindino ez dugu erabaki zelan egingo dugun. Udan grabatu genituen, baina lan edo familia kontuengaitik atzeratu egin da ekoizpen lana.

E. B.: Arlo horretan, gaur egungo joerak nondik doazen ikasten gabiltza, non publikatu, zelan publikatu... 90eko hamarkadatik geroztik, eta 2026an gaude; beraz, ea orain zelan egiten den (barrez).

I. L.: Dozena bat abesti inguru sortu ditugu orain artean; sei grabatuta ditugu, gainerakoak ez. Baina prest daude zuzene-koetako erreperetoriorako.

E. B.: Bestalde, oraingoz digi-talean publikatzea erabaki dugu. ZZE [Zuk Zeuk Egin, Do It Yourself ingelesez] filosofiari jarraitzen diogu eta badakigu jende batek interesa duena fisikoan publikatzeko. Ez dugu hori baztertzen, baina orain sareetan egoteari ematen diogu lehentasuna. Azken finean, gure burua aurkez-teko eta ezagutarazteko modu bat ere bada hori.

Dinamitta estudioko Gūsagaz grabatu duzue.

E. B.: Nahiko ondo konpondu gara grabatzerakoan, entsegu lokala dugun eraikin berean daukalako Gūsak estudioa. Gainera, Gūsa bera ere taldeko parte dela esan dezakegu, taldearen sortze prozesuetan ere parte hartzen duelako. Presarik barik egiteak ere asko erraztu zuen.

I. L.: Bera hurbil izatearen pribilegioa izan dugu, asko inplikatzeko delako bere proiektuetan. Ordu asko eskaini dio proiektuari.

Hainbeste urte joan eta gero, eszena oso aldatuta ikusten duzue?

I. L.: Bai. Azken hogeitaz urteetan asko aldatu da. Euskal Herrian toki mordo dago jotzeko, eta talde asko dago. Baina benetan aldatu dena irteteko ohitura dela esango nuke. Durangaldetik irteten barik, ohikoa zen asteburu berean bi-hiru kontzertu ikustea. Soziologia lan interesgarria da, besterik barik. Ez diot ez hobeto ez okerrago dagoenik.

E. B.: Mundua asko aldatu da, bai. Talde gutxi batzuek jendetza mugitzen dute, baina gero publiko hori guztia ez da beste kontzertu batzuetara joaten.

Piranesik amestutako Erroma, Durangon

MUSEOA Giovanni Battista Piranesi artista italiarraren hainbat grabatu ikusgai dago Durangoko Arte eta Historia museoan; 'Piranesi. Erroma amestua' erakusketa apirilaren 26ra arte egongo da bertan; museoaren 40. urteurreneko lehenengoa da

Aritz Maldonado DURANGO

Giovanni Battista Piranesi artistaren begiradatik Erroma ezagutzeko aukera dago Durangoko Arte eta Historia museoan. Hain zuzen ere, *Piranesi. Erroma amestua* erakusketak ateak zabaldu ditu, eta bertan egongo dira, besteak beste, bere 47 grabatu original. "Piranesi oso pertsona ezaguna da Erromaren iruditegian, eta bere figura eta hiriari egindako ekarpena jendarteratu gura ditugu erakusketa honen bitartez", azaldu du Garazi Arrizabalaga museoeko zuzendariak. Artelanak Jose Ignacio Olave bildumagileari eskerrak egongo dira ikusgai, eta erakusketa bost ataletan dago banatuta; bertan dauden lanen artean, *Le Antichità Romane*, *Il Campo Marzio dell'Antica Roma*, *Trofei o sia Magnifica Colonna Coclide* eta *Diverse maniere di d'addornare i cammini* piezak daude. Hau ez da Olavek Durangoko museoagaz



José Ignacio Olave, Garazi Arrizabalaga eta udal ordezkariak.

lan egiten duen lehenengo aldia. Aurretik, 'Editore mozturrotua' eta Albrecht Durer artistaren grabatu originalen erakusketa ere parte hartu zuen. "Orain 40 bat urte agertu zen Piranesi nire bizitzan. Uste dut bere lanak bat

datozela eskualde honegatz, baita Piranesiren alde arkitekto eta arkeologoagaz ere", azaldu zuen Olavek prentsurrekoan. "Gainera, izugarri gustatu zait zelan geratu den erakusketa aretoa", gehitu du.



Aroa Blanco eta Maite Lopez.

'Euskaldungak', euskaldunen egunerokoak batzen dituen lana

ANTZERKIA Aroa Blanco eta Maite Lopez protagonista dituen 'Euskaldungak' ikusgai dago Abadiñon, gaur

A. M. ABADIÑO

Durangaldeko Aroa Blanco eta Maite Lopez dira *Euskaldungak* laneko protagonistak. Bata euskaldun zaharra da, bestea euskaldun berria. Umorea eta gertutasuna ardatz hartuta, antzezlanak euskararen inguruko eguneroko bizipenak eta kontraesanak oholtzaratzen ditu. Euren arteko elkarriketetatik abiatuta, hizkuntzagaz duten hartu-emana aztertuko dute. Barrearen bitartez, euskaraz bizitzeari buruzko galderak mahaigaineratuko dituzte. Blan-

cok eta Lopezek urteak daramatzate elkarregaz lanean, eta, kasu honetan, elkarregaz egin dute obraren prozesu osoa, hasi eta amaitu. "Elkarregaz zeozer serioa egiteko gogoia genuen aspalditik", azaldu zuten aurkezpenean. Patricia Urrutiaren kanpo begirada eta laguntza izan zuten obra estreinatu aurretik.

Besteak beste, Durangon, Zornotzan, Gernikan eta Galdakaon plazaratu dute antzezlanak. Orain Abadiñon izango dute emanaldia, Txanporta kultur etxean, gaur, 19:00etan.



GAI LIBREAN

ESTI ALBIZU GOIKOETXEA BIZENTA MOGEL

Desinformazioari aurre egin beharra

Azken urteetan, kezkagarria da zein erraza den informazio faltsuak edo "buloak" gure gizartean hedatzea. Sare sozialei eta berehalako mezularitzari esker segundogutxian milaka pertsonen artean zabaltzen daitezke eduki engainagarriak, egiaztapen kritikorik gabe. Fenomeno horrek norbanakoen erabakiei ez ezik, demokraziari eta gizarte-kohesioari ere kalte egiten die.

"Buloen" eragina bereziki larria da jende zaurgarriaren artean. Adinekoak, adibidez, ez dituzte ezagutzen sare sozialen dinamikak eta informazioa manipulatzeko estrategiak, eta horregatik errazago erori daitezke iruzur ekonomikoetan edo osasun-aholku arriskutsuetan. Era berean, informazio faltsua kolektibo jakin batzuen aurka zuzendu ohi da —etorkinak, gutxiengoak edo talde marjinalizatuak—, estigma sozialak indartzeko eta haien aurkako beldurra eta gaitzespenak ereiteko. Mezu horiek, gainera, gorroto diskurtsoa elikatzen dute, eta gizartearen banaketan sakontzen dute, hain

zuzen ere, zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonak babesteko mekanismoak beharren ditugunean.

Egoera honetan, ezinbestekoa da pentsamendu kritikoa eta alfabetatze informatiboa lehenestea. Ez da

"EGOERA HONETAN, EZINBESTEKOAK DIRA PENTSAMENDU KRITIKOA ETA ALFABETATZE INFORMATIBOA"

nahikoa buloak agertu ondoren gezurtatzea; norberak garatu behar du informazioa ebaluatzeko eta iturri fidagarriak identifikatzeko gaitasuna. Hezkuntza da giltzarria, baina helduek ere behar dute formakuntza hori, batez ere komunikazio digitalaren erabilera intentsiboa egiten dutenek.

Egoera honetan, bibliotekek funtsezko zeregina dute. Historikoki informazio fidagarriaren eta ezagutzaren babeslekuak izan dira, eta gaur egun ezinbestekoak dira herriarrei laguntzeko iturri fidagarriak identifikatzen eta pentsamendu kritikoa garatzen. Ezagutza zientifikoari buruzko hitzaldiak, irakurketa kritikorako baliabideak eta alfabetizazio informatiborako programekin, bibliotekak ezinbesteko tresnak edo zerbitzuak dira desinformazioari aurre egiteko. Guztion ardura da komunitate arduratsu eta informatua eraikitzea, eta bibliotekek, beren hezkuntza- eta gizarte-funtzioekin, tresna indartsuak dituzte bidea errazteko.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 30

ABADIÑO Antzerkia
'Euskal dungak' (Aroa Blanco eta Maite Lopez).
Txanporta kultur etxean, 19:00etan.

ABADIÑO Bertsoak
Berto afaria Maialen Lujanbio eta Nerea Ibarzabal bertsolariekin.
Gaztañodi elkartearen, 21:00etan.

ATXONDO Emanaldia
'Irabazi arte' telesailaren 5. denboraldiaren aurrestreinaldia.
Erabilera anitzeko gelan, 20:00etan.

BERRIZ Berbaldia
'Heriotzari begirada bat. Haur eta nerabeengandik ikasten'. (Hizlaria: Manex Beristain). Izen ematea: *ikastaroakumerri@gmail.com.*
Umerri eskolan, 17:30etik 19:00etara.

DURANGO Erakusketa
'Piranesi. Erroma amestua'. José Ignacio Olave bildumazaleari esker, Giovanni Battista Piranesi artista italiarraren hainbat lan ikusgai. Museoaren 40. urteurrenaren ospakizunaren barruan kokatzen da erakusketa.
Arte eta Historia museoa, apirilaren 26ra bitartean.

ELORRIO Antzerkia
'Lo peor que le pueda pasar a un niño' (Ékoma Teatro).
Arriola antzokian, 20:00etan.

ELORRIO Erakusketa
'Estelak'.
Iturri kultur etxean, otsailaren 27ra bitartean.

IURRETA Ipuinak
'Matilda', ipuin kontaketa Mireia Delgadoen eskutik. Roald Dahlen esker oneko jardunaldi literarioen barruan. Izena eman behar da.
Herri biblioteka, 18:00etan (5 urtetik gorako umeentzat) eta 19:00etan (helduentzat).

IURRETA Erakusketa
'25 urte mendiz mendi'. Zaldai Mendi Taldearen sorrerako

argazkiak. Iurretako IX. Mendi Asteko ekitaldien ordutegian.
Goiuria kulturgunean, otsailaren 1era bitartean.

IURRETA Ekitaldia
'25 urte mendiz mendi', Zaldai mendi taldearen sortzaileei omenaldia + Zaldai Mendi Erronkaren 2025eko sari ematea.
Askondoko aterpean, 18:30ean.

ZORNOTZA Antzerkia
'Trajea' (Txalo Produksioak).
Zornotza Aretoan, 20:00etan.

ZORNOTZA Erakusketa
'Afrikako oroitzapenak: Sabanaren begiak' (Jon Batizen argazkiak).
Zelaieta zentroan.

ZAPATUA 31

IURRETA Bizikleta martxa
Basatzan, IX. Mendi Bizikleta Martxa. Iurretako IX. Mendi Astearen barruan. Izen ematea: *www.kirolprobak.com.*
Askondoko aterpetik, 10:00etan.

IURRETA Mendi irteera
Gallandara frontalekin. Iurretako IX. Mendi Astearen barruan.
Askondoko aterpetik, 18:00etan.

IURRETA Bizikleta irteera
Osmara irteera. Txirrindulari Elkartearen.
Iurretan, 10:00etan.

ZORNOTZA Jaialdia
Musikagaz Fest, euskal musika sortzaileen jaialdia: Etxepe + Silitia + Sua + Jonkass + Sara Zozaya +

BERRIZ Dantza
Larrua Proiektuak zuzenduta, La Senior konpainiak *You have an inner world and so what?* lana taularatuko du. Dirdirari eta hauskortasunari buruzko pieza, agertzeko eta desagertzeko grinari buruzkoa.
Urtarrilak 31, zapatuan, Berrizko Kultur Etxean, 19:00etan.

Sueder + Hondora + Dj Rednal + Odik + Uxue Kerejeta + Maialen Ibarra.
Zornotzan, 13:30etik 23:30era.

DOMEKA 1

ELORRIO Antzerkia
'Hodei guztien gainetik' (Markeliñe konpainia).
Arriola antzokian, 17:00etan.

IURRETA Ipuinak
'Amelie'. Ipuin kontaketa musikatua Amaia Elizagoien eta Itziar Teietxearen eskutik. Iurretako IX. Mendi Astearen barruan.
Goiuria kulturgunean, 17:00etan.

IURRETA Bizikleta irteera
Urkaregira irteera. Txirrindulari Elkartearen.
Iurretan, 09:30ean.

IURRETA Deialdia
Santa Ageda koplak abestera irteteko entsegua.
Plazan, 20:00etan.

MALLABIA Emanaldia
'Irabazi arte' telesailaren 5. denboraldiaren aurrestreinaldia.
Kontzejuzarrean, 16:00etan.

ASTELEHENA 2

ABADIÑO Deialdia
'Kandeleridxo' kanta abestera irtengo dira herritarrek.
Ferialekuan, 19:00etan.



LARRUA PROIEKTUA

ZINEMA

BERRIZ

KULTUR ETXEA

Pollolieve y el secreto de la marmota
Domeka 1: 17:00.

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

Aída y vuelta
Barikua 30: 18:00, 20:30.
Zapatua 31: 16:30, 19:30, 21:30.
Domeka 1: 16:30, 19:30.
Astlehena 2: 18:00, 20:15.
Martitzena 3: 18:00, 20:15.
Eguaztena 4: 19:00.

Marty Supreme
Barikua 30: 20:30.
Zapatua 31: 18:30, 21:30.
Domeka 1: 18:30.
Astlehena 2: 18:30.
Martitzena 3: 18:30.
Eguaztena 4: 19:00.

Return to Silent Hill
Barikua 30: 18:00, 20:30.
Zapatua 31: 21:30.
Domeka 1: 20:30.
Astlehena 2: 20:15.
Martitzena 3: 20:15.

La misteriosa mirada del flamenco
Barikua 30: 18:00.
Zapatua 31: 18:30.
Domeka 1: 18:30.
Astlehena 2: 18:00.
Martitzena 3: 18:00.

Ochiren legenda
Zapatua 31: 16:30.
Domeka 1: 16:30.

Zootropolis 2 (3D)
Zapatua 31: 17:00
Domeka 1: 17:00

Mudholland drive (J.B.A.)
Eguaztena 4: 19:00.

ELORRIO

ARRIOLA ANTZOKIA

Father, Mother, Sister, Brother
Barikua 31: 20:00.
Zapatua 1: 20:00.
Domeka 2: 20:00.

ZORNOTZA ARETOA

ZORNOTZA ARETOA

Father, Mother, Sister, Brother
Zapatua 31: 20:00.
Domeka 1: 20:00.
Astlehena 2: 20:15.

Frankie y los monstruos
Zapatua 31: 17:00.
Domeka 1: 17:00.

Akelarre, marearen kontra (J.B.G.A.)
Eguena 5: 20:15.



Joseba Derteano DURANGO

Ewan Urainek (Durango, 2000) Durangoko Kulturalean eman zituen lehenengo urratsak. Gero, Athleticera jauzia egin zuen. Athleticen hirugarren taldea den Baskonian 14 gol sartu zituen urte batean, eta Athleticen lehenengo taldeagaz lagunartekoak jokatzera heldu zen. Baina lesioek promesa gaztearen gorako bidea zapuztu zuten. Athleticen ostean hainbat taldetan aritu da (Amorebieta, Salamancako Unionistas, Badajoz eta Navalcarnero) Adriatikoko kostaldera heldu aurretik.

Zelan heldu zinen Italiara?

Egia esanda, aurreko uda oso eroa izan zen hartu-eman eta kontaktu aldetik. Iazko urtea oso gogorra izan zen niretzat, lesioengaitik; ia ez nuen jokatu. Ez zitzaidan eskaintza erakar-garririk heltzen, eta kanpoan probatzea erabaki nuen. Bitartekari batzuen bitartez, Manfredoniaren eskaintza heldu zen. Hango jokalaria Luis Hernaizek deitu zidan. Hango giroa oso etxekoa zela esan zidan eta probatzera animatu ninduen. Gainera, betidanik gustatu zait Italia: Cerdeña eta Erroma bisitu ditut, italiara ikasten aritua naiz... Beraz, probatzea erabaki nuen.

Zelan joan da taldeko egokitzapena?

Ondo hasi nintzen, baina gero pare bat partidutan ez nuen neure onena eman, nekeagaitik, eta entrenatzaileagaz talka txiki bat izan nuen. Italiarrek oso ideia finkoa dute aurrelari batek zelan jokatu behar duen; erreferentziazko aurrelari bat gura dute, eta niri, garaia izan arren, mugitzea eta jokoan parte hartzea gustatzen zait. Hasieran gogorra izan zen elkar ulertzea, baina, gero, partidu batean gol bi sartu, asistentzia bat eman eta dena aldatu zen. Begirunea irabazi nuen.

Manfredonia 50.000 biztanle dituen kostaldeko herria da. Zelakoa da bizitza han?

Hiri turistikoa da udan, 'Italiako Benidorm' deitzen diote. Neguan lasaiagoa da. Oso herri polita da. Ni auzo xume batean bizi naiz eta izugarria da zein ondo tratatzen naute. Bertako sentiarazten naute. Okindegian, kafetegian, arraindegian... Edonon! Futbola ikaragarri gustatzen zaie. Kanean noala autoak gelditu egiten dira eta *Bomber!* oihukatzen didate. Hemen ho-

"Kalean 'Bomber' esaten didate; oso maitatua sentitzen naiz"

EWAN URAIN AIRD FUTBOL JOKALARIA

Athleticen aritutako aurrelari durangarrak Italiako laugarren mailako Manfredonia taldean aurkitu du lesioak ahaztu eta futbolaz berriro gozatzeko aukera



Urainek joan zen asteburuan sartu zuen bere azken gola. LUCIA MELCARNE

rrela deitzen zaio goleatzaileari. Oso maitatua sentitzen naiz. Behin, Publai eskualdeko Telesveva telebista kanaleko saio batean parte hartu nuen. Italiaraz ondo moldatzen naiz, hemen denbora gutxi daramadan arren. Atzera begira jarrita, lehenengo geltokia Baskonian egingo dugu, Athleticen hirugarren taldean. Mar-ka ikaragarria lortu zenuen.

Bai. 12 partidutan 12 gol sartu nituen. Garai hartako oso oroitzen onak ditut. Baina hasiera gatxa izan zen: jubeniletatik irten eta hain jokalaria espermentatuekin lehiatzera pasatzea kostatu egin zitzaidan. Denboraldi erdian entrenatzailea aldatu zuten. Ivan Fuentes sartu zen, beheko mailetan nire entrenatzaile izandakoa. Nigan konfiantza ipini zuen eta orduan heldu ziren golak. Nire ibilbideko denboraldirik onena izan zen. 14 gol sartu nituen.

Gero, Bilbao Athleticera heltzean, lesioak agertu ziren.

Zoritzarrez, lesioek nire kirol ibilbidea markatu dute. Belau-neko lesio larria izan nuen: atzeko albo-lotailua eta atzeko meniskoa apurtu nituen, eta gurutzatua kaltetuta geratu zitzaidan.

Zelan egiten dio aurre 18 urteko gazte batek horrelako egoera bati? Kolpe latza izan zen. Hiru partidutan hiru gol sartuta nengoen, promesa bat nintzela zioten, eta momentu hartan Athletic egaz

kontratu on bat sinatzeko zorian nengoela uste nuen. Baina, bat-batean, dena gainbehera etorri zen. COVIDa heldu zen segituan, eta dena geratu zen. Nire motibazioa errekonperazioa zen. Mundua berriro martxan jartzen zenerako taldera batzeko prest egotea nuen motibazio, eta lortu nuen.

Athleticen lehenengo taldeagaz partidu ofizialean debutatu ez izana arantza bat da?

Bai, dudarik barik. Ondo nengoen. "Erritmora ondo egokitu naiz eta hemen jokatu dezake-dala uste dut", esaten nien ingurukoei. Baina beste behin ere iskitotibialeko lesio bat izan nuen. Berriro lesioen buruko mina! Lesioek ez didate nire mailarik onena ematen utzi.

Gogoratu ditzagun garai hobeak. 2023ko urtarrilean Amorebieta klubera batu zinen eta Bigarren Mailara igotzen.

Eromena izan zen. Hasieran, Athleticetik irteteak beldurra ematen zidan, pertsona barnerakoa naizelako, baina zorte handia izan nuen. Oso giro ona geneukan. Denboraldi hartan ikasgai garrantzitsu bat ikasi nuen: aldagela batu batek aurrekontu handiek baino indar gehiago izan dezakeela.

21 urtez azpiko Eskoziako selezioagaz hainbat lagunarteko jokatu zenuen, zure amaren jatorria dela eta. Partidu ofizial batean debutatzeko zorian ere izan zinen, baina ez zen gauzatu. Zer gertatu zen?

Arantza bat daukat horregaz ere, Athletic egaz debutatu ez izanagaz gertatzen zaidan moduan. Lagunarteko batzuk jokatu nituen eta oso ondo sentitu nintzen. Taldekideen maila berean edo hobeto ikusten nuen neure burua. Baina gero, txapelketa ofizialeko partidu baterako deitu eta ez nintzen zelairatu ere egin. Harrezkero ez didate deitu eta ez dut hartu-eman gehiago izan eurekin. Arrazoren bat eman balidate sikan! Ezin dut ulertu zer gertatu zen.

Aurrera begira, zer asmo duzu?

Oraintxe bertan oso zabalik dago dena. Bikotekidea Miamin dago, Espainiako ligara bueltatzea gustatuko litzaidake, baina Italian ere oso ondo nago. Uda konplikatu izango da erabakiak hartzeko, baina pazientziaz hartuko dut. Futbolearen errendimenduaren eta golen arabera aldatzen da dena; beraz, ikusiko dugu.

Ewan Urain: Durangon sortutako aurrelari eskoziarra

Ewan Roy Urain Aird (Durango, 2000) Athletic Clubeko harrobian hezitako aurrelari garaia da. Bere jatorri euskaldun eta eskoziarrari eskerrak, Eskoziako 21 urtez azpiko selekzioagaz jokatu du. Gaur egun, Italiako Serie D-n jokatzen dabil, Manfredonia Calcio taldeagaz.

Profila eta jatorria



1,93 metroko aurrelaria.
Aireko jokoan indartsua, bizkarrez jokatzen trebea eta jokoan parte hartzea gustatzen zaiona.



Sustrai bikoitza
Durangon jaioa, aita bizkaitarra eta ama eskoziarra (Lockerbie herria) ditu.



'Michu' eta Haaland erreferente
Umetan Miguel Perez 'Michu'-ren kamiseta bat zuen, Swansea taldean zebilenekoa. Gaur egun, Haaland norvegiarra miresten du.

ITURRIA, NOTEBOOK



Kirol ibilbidea eta estatistikak



Durangoko Kulturala, Athletic, Baskonia, Amorebieta, Unionistas de Salamanca, Badajoz, Navalcarnero eta Manfredonia.

Lezamatik Italiara
Athleticen ondoren, hainbat taldetan aritu da. Amorebietagaz Bigarren Mailara igo zen 2022/2023 denboraldian. Aurten Italiako taldeagaz bost gol eta hiru asistentzia daramatza oraingoz.



Eskozia sub-21eko internazionala
Lagunarteko hiru partida jokatu ditu: Bi Ipar Irlandaren aurka eta bat Galesen aurka.

Denboraldirik onenak gol kopuruan

14	11	5
		
CD Basconia (Hirugarren Maila)	Bilbao Athletic (1. RFEF)	Navalcarnero (2. RFEF)



JOKALDIA

AITOR ARABIOURRUTIA OBREGÓN TRINKETA

Ez dadila haria eten

2025. urtea amaitu zen eta geldiezina den elur bola bezalaxe, 2026. urtean sartu gara. Egunerokotasunean buru-belarri murgilduta bizi gara, momentu batez bada ere gelditu eta atzera begiratu barik.

Urte hasiera trinket unibertsoan daukagun txapelketa ospetsuenaren finalarekin bat datorkigu urtero, SUPERPRESTIGE txapelketarekin alajaina. Ezker paretan eskuz-banakako lehen mailako txapelketarekin alderatu dezakegu eta aurtengo txapelduna Peio Larralde izan da. Aurrelari hazpandarrak laugarren aldiz lortu du Donibane Garaziko Garat trinketea jokatzen den Superprestige txapela.

Azken hamarkadan, Durangaldeko pilotari bik izan dute beraien meritu osoz txapelketa entzutetsu hau jokatzeo aukera: Mikel Gonzalez berriztarrak eta Asier Aspuru abadiñarrak. Aipatzeko datua iruditzen zait

"AZKEN HAMARKADAN ESKUALDEKO BIK JOKATU DUTE SUPERPRESTIGE: MIKEL GONZALEZEK ETA ASIER ASPURUK"

"PENA HANDIA LITZATEKE HURRENGO URTEETAN DURANGALDEKO EDO BIZKAIKO PILOTARIRIK BERTAN EZ IZATEA"

azken hau, Bidasoa ibaiko mugako alde honetako oso pilotari gutxi lortu baitute Superprestige txapelketaren hogeita hamabi ekitaldietako batean parte hartzea. Meritu osoz lortu zuten gonbitea, Iparraldeko zirkuituan ez baitute inongo oparirik egiten, eta hegoaldeko pilotari orok meritu bikoitza egin behar izaten du bertako pilotari eta txapelketa zirkuituan sartu ahal izateko, are gehiago Superprestige txapelketan.

Zer esan nahi dut honekin guztiarekin? Ba pena handia litzatekeela hurrengo urteetan Durangaldeko edo Bizkaiko pilotaririk bertan ez izatea eta orain arte bizirik iraun duen haria etetea. Etorkizunean Asier Aspuru edo Mikel Gonzalez berriak sortzeko lanean jarraituko dugu, hauek errelebo sendoa izan dezaten eta gazteek trinketea beraien pilotari ibilbidea garatzeko aukera izan dezaten.



LAU-HORTZA

MAITE EUBA
AREITIOAURTENA**Bete**

Begiak bete, bihotza bete, ase-bete, ezin bete, beteta naukazu, asmoz bete, ilusioz bete, disgustuz bete, eskubete, ahobete hortz, sabel bete, ideiaz bete, zarataz, zorionez, esperantzaz, itxaropenez, lotsaz... 2025ak bete zaitu? Bete asetu ala bete gainezka egin? Zerk beteko zaitu 2026an? Zer, nor, nola, norekin, non, zelan espero duzu betetzea 2026a?

Pilotua ala kopilotua izango zara? Zer nahiago duzu?

Gauza txikiek betetzen naute; izan ere, lorgarriagoak dira. Handien esperoak sarritan desilusioa eta frustrazioa dakartza bueltan.

Handiak ere txikitik hasten direla sinetsita nago: astelehen gogaikarri, aldatsgora astunari buelta ematea lortuz gero, aste elegantea izan liteke, hilabete eramangarria, urte fenomenala.

Urtarrilean bertan hasi naiz, ez naiz udari begira egongo, egun berezia noiz etorriko... Umetan amak askotariko galletak bisitentzako gordetzen zituen. Orain edozein momentu egiten dut berezi, ahoa askotariko galletaz betez. Aspaldi erabaki dut geure esku dagoela egunari berea ematea; patua geuk erabakitzea ahal den neurrian, ezeren agindupean egon barik.

Gaztetan, oherako orduan eguna ondo amaitzeko estrategia hauze nuen: gertaera gozo bat buruan gordetzea.

Akordu hori izan nuen Urdai-baiko Guggenheimik ez genduela izango jakin nuenean.

AKUILUA

"Sortutako poltsa guztiak bakarrik dira"

GORANE GUILLEN BASAURI ETA TXABER AGIRRE MAZAGA GORAKAT

Elorrioko Gorakat artisautza proiektuak hamarkada bat bete zuen iaz. Urterik urte azokarik azoka jarraitu gura dute bidea egiten, sortutako sinergia berrieekin gozatuz

Aitziber Basauri ELORRIO

Gorane Guillenek (Elorrio, 1985) sortze prozesu osoa du gogoko; poltsa prest dagoen momentua, bereziki. Txaber Agirrek (1980), oster, pieza eta kolore collage-a sortzeko erronka. Urteurrenaren aitzakian, Gorakat Sesioak egin dituzte Elorrioren duten tailerrean. **Hasierako poltsa haiek eta gero etorri direnek badute zerikusirik?**

Gorane Guillen: Oinarria berdina da, baina eboluzio bat egon da. Egindako poltsa guztiak bakarrik izan dira, horrek bereizten gaitu. Sortutako bakoitza oso gogoko izan dugu, baina hurrengo beste era batera egin dugu beti. Horixe da gure balioa. Hasieran brodatuak ere gehitzen nizkion, baina lan handia eskatzen zuen. Gozotasunez gogoratzen dut hasierako poltsa, hala xe jaio zen Gorakat.

Txaber Agirre: Baliteke tamaina edo oihalak berdinak izatea, baina koloreak, forma eta konbinazioa desberdinak dira poltsa bakoitzean. Urteekin asko ikasi dugu, bezeroen eskarrietatik ere bai. Akaberak ere hobeak dira. **Tandemean lan egiten duzue.**

T. A.: Goranek du josteko ardura. Nik oihalak moztan ditut eta diseinuan parte hartzen dut.



**"BEZERO FIDELAK
DITUGU ETA HORREK
INDARRA EMATEN
DIGU AUERRERA
JARRAITZEKO"**

G.G.: Haurdun nengoela batuz Txaber proiektura, josteko makinaren aurrean gehiago ezin nuenean. Aurretik ere laguntzen zidan (azoketan, oihal gutxi batzuk moztan...) baina orain sei urte sortzen hasi zen. Orain, bion artean egiten dugu dena.

Gaur egun, zeintzuk erronka ditu artisau batek bizirik irauteko?

T.A.: Oso egoera gogorra bizi dugu. Azokak antolatzerakoan, askotan ez zaio balioa ematen lanbideari. Askotan nahaste handia egoten da eta horrek min egiten dio artisautzari. Belarritakoak 8 euroan zein 40an ikusten dira eta "zelan da posible hori?", galdetzen dute askok. Azoka batzuk inertziaz antolatzen dira, aukeraketa duin bat egin barik. Uste dut artisautzaz bizi direnek lehentasuna izan beharko luketela, inor gutxietsi barik.

Hala ere, urte hauetako ibilbideak merezi izan du?

G.G.: Apustu handia egin dugu; gu biok eta umea honetaz bizi gara. Iazko urtea oso gogorra izan zen, jarraitu ala ez egon ginen. Baina askok ezagutzen gaituzte. 'Gorakat bat gura dut' esanez etortzen dira, eta eskertzekoa da. Bezero fidelak ditugu, Durangal-detik kanpora ere bai, eta horrek indarra ematen digu aurrera jarraitzeko.

Materiala zelan aukeratzen duzue?

G.G.: Tapizeriarako oihalak erabiltzen ditut, oso gogorrak eta iraunkorrak direlako. Orain, larrua ere erabiltzen dugu, beltza eta *print animal* estanpatua gehien.

Zerk inspiratzen zaituzte?

G.G.: Egunerokoan ikusitako kolore konbinazioek: kuxin batean, inoren janzkeran... Kontrasteak asko gustatzen zaizkit.

T.A.: Zapatilei erreparatzen diet. **Gorakat Sesioekin hasi zarete.**

T.A.: Musikariak gure tailerrean abesti bat grabatzera gonbidatu ditugu, sareetan zabaltzeko. Proiektua aberasteko modua iruditzen zaigu. Sortutako sinergiekin gozatzen jarraitzea dugu helburu.



Unibertsitate Orientaziorako Azokak

EHUazoka 2026

DONOSTIA
Urtarrilak 31VITORIA-GASTEIZ
Otsailak 7BILBO
Otsailak 14